Koldo Izagirre

Euzkadi merezi zuten

narratiba Susa

Liburu honen salneurria: 3 € + BEZ.
Ordainketa egiteko, edo liburu gehiago eskuratzeko:
http://susa-literatura.com/ebook

© 1984 Koldo Izagirre
© edizio honena: Susa
cc-by-sa Creative Commons Aitortu Partekatu
http://creativecommons.org/licenses/by-sa/3.0/deed.eu

Lehen edizioa paperean: 1984
Edizio hau: 2011ko ekaina

Susa: 317 posta kutxa / 20800 Zarautz
Adoain Aita 92 / 31015 Iruñea
Zubitalde 21 / 48195 Larrabetzu
Telefonoa: 943 83 26 55
Elektroposta: susalit@armiarma.com
Webgunea: http://susa-literatura.com

–1–

Erroila bazterretik joango ziren maizenik, larruzko poltsak bizkarrean, uraren azal apartsuan zintzilikatutako berroei harrika, santanderinoak biltzen zuen axeri-buztana zanpatuz, txipituak sagasti biluziaren erditik, irristatuz belar hezean, isilak, isilak galegoaren gorriak bezala aldapa gora, bidezidorraren bihurgunean alto eginak topatzen zituztenean. Gelditu egingo ziren kamamiloz bustitako zapiak ezin garbitu izan zuen azken makarrari hazka, inora behatzen ez zuten begi triste betileluzeei beha, txelaturik, euri zurrutan beraiek eta mendetako elkar barkatze aspertuan gorantz zetorren itzainaren zain gelditutako adarzabalak. Akuilukada leun bana emango zien, eta orduan mintza-legearen hauste haurrek ezin ulertuzko hura zen gertatzen, golde eta garraio lanak abere bakoitzarentzat gizonaren ahoan antzinatik ipiniak zeuzkan aginitz desberdinak nahasiz, «Arre boi!» esango zien galegoak idiei samur, eta uztarrikoak –asto bailiran, mando bailiran, behor bailiran– abiada unatua-

ren aurrerantzari lotuko ziren. Aitonak ez luke sinetsiko, sokila botako lioke, hizketan hasten zenetan idiak okertu egiten ziren goldean, «Hua zuzeno!». Galegoa atzeratu egingo zen ostera, hatsantua, eskuarekin ezker belaunari lagundu beharrez malkarrean, idien morroi.

Alferra ez bestea, arrebak nahiago zuen joan gabe, kaka ere artadian egiten zuen ur bila ez mugitzeagatik, eta bera igortzen zuten errekan gora barrikakoa ahitutakoan. Bazekien arreba zelatan egongo zitzaiola ganbarako teila harrotuen artetik, eta iturbururaino joan behar izaten zuen.

Burua jaso zuen. Ezker aiekan irrintzia. Ermita gaineko bidetik zetorren, labroka baserri aldera, zuri, karea bezain zuri. Mutikoak lasterbidetik hartu zuen, bazterrean ezkutatu zuen pegarra eta zaldiaren atzetik ekin zion. Zaldizkoak kapelu berdeari eusten zion. Zaldiaren besoak lerratu egiten ziren estratan, ferrek txingarrak sortzen zituzten harrietan. Bareak min ematen zion saihetsean.

Zaldia ate ondoan zegoen lotua, zakurrak uzkur ageri zuen muturra txokotik. Zaldiak pikor beltzak zituen hanketan, zaldien garitxak. Eskua tripan jarri zion eta larru estiro beroa nabaritu zuen, behiarena bezalakoa, ilea motzago. Adurrez bete zeuzkan ezpainak. Kalparra ere zuria, orraztua. Hizketa etxe barnean, leihora hurreratu zen. Sukaldean zegoen, bibotebeltz, masailgorri, luze. Balantza gaineko kapoiak hartu zituen hanka lotuetarik eta amari luzatu zizkion. «Ez dira ailegatzen, eskasak dira!» esan zion hastioz, «Alfer biajia eragin didazue!». Zaldizkoak ontzako zilarrak hartu zituen mahai gainetik, balantza hartu zuen. Mutikoa oilotegiaren atzealdean ezkutatu zen. Zaldizkoak belaunetarainoko bota lustreatuak zeramatzan. Arreba aulki batekin azaldu zen, zaldiaren ondoan ipini zuen igankai zaldizkoak balantza larruzko montaduran lotzen zuen artean. Aulki gainean jarri zen zutik, eta handik zaldian istapeka. Amak «Arroltza prejitu pare bat sikiera!» esan zion, eta ezetz, «Presatua nabil!». Lepoa igurtzi zion zaldiari, eta belaunei eraginez luberrira buruz abiatu zen. Arrapaladan urrundu zenean, zakurrak irten eta

zaunka egin zion. Ama aulkian jesarri zen, eta arreba oilotegira inguratu zen maltzurki. Mutikoa pegarraren bila itzuli zen kanaberadian zehar. Sudurretara eraman zuen eskua, eta animaliaren usain sarkorra hartu zuen. Harri bat erori zen kanaberadiko lintzuran.

Atarian utziko zituzten lau urtez baliatu beharreko orkatiletarainoko gabardina ilun zopatuak, karraskila ziri bana moztuko zuten, eta zutik, jesarririk, pikotxean, hormei helduta, balantzaka, belauna doblaturik edo zangoa gain batean emanik, oinetakoak eskuratzeko gimnasia saio desbateratuan sakristiako apal gaineko portzelanazko irudien jarrerak hartuko zituzten bota handiegi eta abarka zaharrei itsatsi lokatza gelan sartu aitzin kentzearren. Neskek erdeinuz behatzen zieten, berek ez zuten oinatzik uzten gorotzetan, nahiago zuten bidetik solasean.

Maisua astean behin bizargiten zen, eskua pasatzen zuen berriz berriro zintzurretik gora, bizar gogorraren laztanzale haurreriak Santa Maria Jangoikuaren Ama erantzuten zuen bitar-

tean. Poltsak askatuko zituzten jesarri ahala, eta sakondegi sekretu haietarik pizarra eta pizarriloa eta orri muturrak janak eta harrotuak zituen dotrina aterako zituzten labana arrastoz eta tinta tantaz sortutako ibai, mendi, eguzki eta izenen gainera. Maisua ere jesarri egingo zen liburu lodia zabaldurik, eta haurren begiak *(...ezin luzea izan gure gramatika...)* leihoetara luzatuko ziren, Casas Baratas egiten ari ziren hargin igeltsero zurginen higidura motel urrunei errepara. Idiak galegoaren aurretik iristen ziren beti, burumakur harri lorrean, lerak egunez egun ailorbean egindako ildo bien erditik. «Soldata horrengatik etorri bihar du gizonak handik honera!», guraso-en komentario haurrek gogoratua.

Eskola, euriaren emanari behatze gogaitu bat.

Don Telmo burutik zegoelakoa haurrek zaldia ukuilutik ebaska atera zutenez geroztik ibiliko zen ahoz aho. Zaldia ez zen izutu, bere pausaje nagian hasi zen mendirantz eraman nahi zuten haurren eztenei ez ohartua bezala, bezperako bi-

deketa gogoan. Haurrak ez zitzaizkion gaitzitu hala ere, atzetik zekartzan nora ote. Bezperan egin arau, tifusak jotako baserrian gelditu zen lehenik. Besoak tolestu zituen, belauniko jarri zen, handia zen Don Telmoren zaldia, eta ipurdiaren kargari ezin eutsi bailion, jesarri egin zen baldar. Haurrek iraztor metaren gibeletik kirikatzen zuten. Bulta bat egon zen hala. Lanak izan zituen ostera ipurdia jasotzeko. Buruz ikasitako itzulia egin zuen Don Telmoren eri guztiak bisitatuz bat banaka, zeremoniaren zehaztasuna ezertan hutsegin gabe. Etxe atarian geldituko zen, jesarri egingo zen Don Telmok agintzen ohi zion bezala, itxoin egingo zuen medikuak bere jakinduria erabil zezan, salda, arrautza egosia eta txankar mutur bat besterik ez edo oilasko izter bat bere ardo zurrutarekin, eta poker eginez hurbildu behar litzaiokeela uste zuenean, zutitu egingo zen eta hurrengo baserrira abiatu ipurdia kulunkatuz. Haurrak laster gogaitu ziren zozokeria hartaz, baina zaldia tematsu jarraitu zitzaion ibilbideari, egunero bezala Don Telmok bazkaldua, askaldua eta afaldua behar zuen etxeratu.

Ordudanik moteldu zen Don Telmo hizketan, zaldiak bere burutik egingo zituen mugida guztiak, ez zion jaramonik egingo aginduari. Medikuak pentsatu zuen zaldiak nahasi egiten zituela hitzak, eta hala esango zuen «Zutik!» aurrera manatzeko, eta zaldun-zamariek desinkronizazio ezin beteagoan jarduten zuten. Zaldiaren menpekotasuna frogatu nahiak alfer oihuak eragiten zizkion. Tente zamalkatzen zuen Don Telmok, arba bati lotua bezala. Zaldiarekiko moduak hasiko zen erabiltzen jendearekin, behin Bordatxokoa etorri da ate joka eta Don Telmok aurrerako manu hura oihukatu zionean «Arrastaka bizi gera, baño ez nabil arrastaka!».

Ordea eri batzuk hil egin zirenez eta sendatu berriz zenbait bakan, haiek utzi lekua bete ahalegin, eritasunek herritar berriak mankatu zituzten. Baina Don Telmok ezin izan zuen zaldiaren itzulia aldatu, animaliak zaldizkorik gabeko egun hartan bere gisa konplitutako ibili hura egiten zuen soilik, motel eta egoskor. Don Telmo sukaldeetan sartuko zen, hildakoren baten osasunaz egingo zuen galde, eta jendeak «Hobeto, hobeto!» esango zion beldur-errukiz, serbieta garbi

bat ateratzen zutelarik. Eta zenbaitek «Orain hobeto!».

Bordatxoko aitona zen zamaria azpiko zuen garai hartako eri bakarra. Etsia emanik zegoen, Don Telmok aspaldian zuen ekarria eta izenpetua heriotza-agiria. Etxe hartan behintzat gelaraino igango zen tapaki zuritan ageri zen buru soil harekin solasean egitera. Mutikoa zaldiaren gainean jartzen zen eta makilka xaxatzen zuen, baina zaldiak tinko iraungo zuen jabearen zain jesarria, begi odoltsuak ateari beha. Ohi bezala, Don Telmok «Ederki!» errepikatuko zuen lau aldiz, mankak jasoko zituen sitsak jandako muturrak erakutsiz, pipa aterako zuen patrikatik eta pospolo bakarrarekin piztuta, «Zuk erreko zenuke orain ere!» eskaini zion, eta «Bai!» akitu baten desioz pipa hurreratu zuen sagar ximelduaren azala ziruditen ezpainetara. Aitona ez zen pentzu-zaku bat baino gehiago mugitu, ez zuen indarrik besoetan, begiak itxi zituen, ke luze bat kendu zion, zaldiaren begien adinako zintzurrari eragin zion irensteko.

Begiak jaso zituenean Don Telmoren muturra ikusi zuen aurrez aurre, milaka zulotxotarik

arnas hartzen zuen sudur hura, bereagana etorki. Orduan amak oihu egin zuen etxetik, Don Telmo tentetu egin zen, eta mutikoak ere leihoan ikusi du ama, paper bat inarrosten zuela. Don Telmok zilarrezko kateari tira zion, ezin zuen atzamarrekin zabaldu, labana atera zuen, urratu egin zen, hortzekin libratu zuen, eta ordua ikusirik etxe barnean sartu zen berriro. Mutikoa jaitsi egin zen zaldi gainetik.

Ilunabarrean, Artolak gizonezko bat hil zela adierazten zuten hiru ezkilak joak zituenean, apaiza alde egina zenean, mutikoa aitonari musu emana eta ahaideak azaltzen hasiak, zaldi zuri batek gizon bizardun bat zeraman Bordatxotik gora. Ziren Don Telmo eta Don Telmoren zaldia, Don Telmoren bizarra bezain zuri.

–2–

Astelehenetan aurreneko lana mahaiak eta aulkiak baztertu eta metatzea zuten. Maisua leihotik beha gelditukо zen, haurren builari gor, eskuak jaka zaharraren sakeletan. Haize bustiaren samurtasunarekin apaltzen zen hotsa. Maisua kristal zikinei ohartzen zen, eta bere ikasleen arreta islatzen zitzaion begi aitzinean. Lerroan zeudenean jiratu egingo zen marmarrari betarik eman gabe, eta berrogei begi harritu jarraituko zitzaizkion esku iletsuak zolaren zurajean uzten zuen arrasto zuria norabide jakineko txiza-erreka luze bihurria iduri. Puntu batzuk markatuko zituen han-hemenka, altxa eta ezkerra gerrian lana begi zeharrez ederretsitakoan jesarri egingo zen eskuko hautsa txaloka astinduz. Aulkia hanka biko paratuko zuen burua atzeko arbelean emateko. Orroa egingo zuen «Artola, Erromara!». Artolak maisuari behatu zion, munstro oreztadunari behatu zion, puntu bereizten saiatzen ziren denak. Hiru urrats eman zituen, puntu baten ondoan gelditu zen tente.

«Parisen barrena!». Itzuli, gibeleratu, begi zeharrez behatu berak ere, angelu bat egin oinez, gelditu. Beti maisuari erne. Avilatik etorritako gizon gazte hark ere zoro ospea bilduko zuen berandu gabe.

Gizonezko batzuk tokan ari ziren, emakumezko talde bat kontzejuko balkoipean zegoen abuztuko eguzkiaren gerizan. Haurren buila hasi zen, eta plazako guztiek eliza aldera behatu zuten. Atea zabaldu zen, eta haur andana bat sortu zuen ilunpeak. Zirkulu erdi bat osatu zuten atea inguratuz, jokalariaren azken fitxak hutseginaren zur hotsa atera zuen. Telleriko alaba azaldu zen haurra besoetan, eta senarra, eta aitajauna, eta amandrea. Neska-mutikoak «Haurra xaguak jango!» hasi ziren errepikan, zaharrek barre egin zuten, jokalari berri batek hartu zituen fitxak. Telleriko alabak ere barre egin zuen, aitzina abiatu zen haurrek inguratua. «Horrek denak ume-lehorrak!» komentatu zuen agure batek, eta orduan aitajaunak sos mordo bat bota zuen arranpulu,

urrun. Haurrak aztarrika oldartu ziren bila, kalapitan.

Frontoipetik Zugasti kankailua etorri zen lasterka, brusari korapiloa eginda, itokarrean, «Erregina, erregina!» deiadar. Haur batzuek korri egin zuten etxe barruetara. Kalakan ari ziren emakumezkoak banandu egin ziren, tokan ari zenak lurrera utzi zituen fitxak, plazako guraso guztiak urduri saiatu ziren ipurzikinketan ziharduten haurrak biltzen, plazako haur guztiak ezkutatu ziren supitu hartan, eta lando beltza errauts batean heldu zen, hankak gomazko zorrotan bilduak zituzten bi zaldi zurik ekarria, gatza bezain zuriak. Eztul batzuk egin ziren, eskuak begietara eraman. Atso batek esan zuen ez zela erregina. Zapelak jantzi ziren. Haurrak gordegietarik irten ziren, eta sosketa berritu zuten, tokalariak fitxa bila iduri. Neskato batek aurkitu zuen gelditzen zen sos bakarra, zanpatua. Anaiari erakutsi zion urrundik, ematekoa eginez, irriz.

Mahaiak bilduak zeuden haurrak sartzerako, eta bi ziren irudiak, gelaren bazter banatan, ira-

gan asteko zomorroaren umeak bezalakoak, haren berdina bata, handiagoa bigarrena, bestelakoa guztiz. Haurrek elkarri behatu zioten, eta lerroan jarri ziren maisuaren agindurik gabe. Maisuak itxoin egin zuen haurrak narda zitezen gelaren erdiko marmitatzarraren zergatiari buruzka. Zugasti igorri zuen urketa. Bekaizkeriaz ikusi zuten denek marmita irribarretsu hartzen, ate ostean ezkutatzen, iturrirantz abiatzen. Maisuaren hatsak lurrundutako leihoaren bestaldean, Zugastik ezin zuen marmitarekin, sei bider aldatu zuen eskuz, okerka zetorren, marmitaren ipurdia harri joka. Gelaren erdian utzi zuen ardura handiz, ezpainetaraino betea. Gorrotoa hartu zioten. «Artola, Ameriketara!» egin du orroak aulkitik. Artola aurreratu egin da, zalantza izpi bat sumatu zaio, zantzu berrien barrutiraino doa ausart. Irri dagie lagunei, baina irria harri egin zitzaion maisua aulkia erortzera utziz altxa eta gela hanka luzaka neurtuz etorri zitzaionean. «Itsasoz!» manatu dio Artola izutuari, eta urak gainez egin du maisuak zangoa marmitan sartu zuenean, zurezko zolan zehar isuri zen, eta haurrek zapabururik gabeko putzuari eman zizkioten

begiak. Maisuak ere zola bustira behatu zuen, eta Zugastik algara egin zuen hortzez barne.

Hurrengo astean ikusiko zuen. Kontzejua banderaz josia zegoen, ez zitzaizkien zangoak ikusten balkoian zeudenei, haize zakarra zebilen eta ematen zuen kontzejuari sua zeriola leiho guztietarik. Donostiatik etorritako bandaren tresnek distira itsugarriak sortzen zituzten. Apaizek urrezko jantziak zeramatzaten. Motor baten hotsa entzun zen, eta jendea badatorka hasi zen, bandakoek kapeluak jantzi zituzten. Autoa elizaren atean gelditu zen, xoferra jaitsi zen eta emakumezko kapeladun biei lagundu zien. Elizan sartu ziren emakumezkoak. Apaizek elkarri behatu zioten. Zaharrena elizarantz higitu zen kaparen astuna ezin garraiaturik, baina berehala zeuden emakumezkoak kanpoan berriz. Gazteenak itzalki bat zabaldu zuen bestea gerizatzeko. Zuzendariak zeinu bat egin zuen eta tresna haiek musika eder bat barreiatu zuten. Haizeak bela egiten zuen itzalkian, eta emakume gazteak itxi egin zuen. Bandaren ondoan solasean

zeuden lebitadunak emakumeengana hurbildu ziren, apaiz zaharra atzean gelditu zen. Lebitadunek kopaletak kendu zituzten, makurtu egin ziren *(...biba kabildo maitagarriya, biba autoridadia...),* muin egin zuten emakume zaharrak luzatzen zien eskuan. Zilarrezko giltza handi bat eskaini zion lebitadun batek. Emakume zaharrak emakume gazteari pasa zion.

Burusoilak paper batzuk atera zituen nonbaitetik. Ahots mehea zuen. Haurrak «Hidalga señora!» agurrean gelditu ziren trabatuak, hitz handiegiak bailiran belarri handi haietan sartzeko. Ondoren apaiz zaharrak liburu bat zabaldu zuen eta latinak esaten hasi zen. Ez zen luzatu haatik, eta isipua harturik ereinotzezko gandor bana ageri zuten Casas Baratas bedeinkatu zituen. Haurrek xoferrari erreparatzen zioten, autoa zapi batekin ari zen igurzten, iduri eta argizaria ematen.

Artola emakumeagana hurbildu zen burua kolkoan eta buruki gorri bat eskuetan. Emakumeak giltza bat hartu zuen burukitik eta arratsaldeko sokamuturrerako oholen ondoan zeuden galegoengana etorririk banaketa hasi zuen.

«Trintxerpeko zaborreria guztiak!» jarri behar zuen bizitzen Casas Baratasen. Galega batzuek «Viva la Reina!» oihukatu zuten.

Erregina bazihoan. Maisuak haurrengana itzuli zuen burua, eta bizar gogorra pailakatzeari utzirik bat bi hiru lau egin zien, eta «Uso zuria esazu!» kantatu zuten. Erregina mutikoaren ondoan gelditu zen adi, eta mutikoak behatu egin zion, eta ama ikusi du Bordatxoko leihoan garrasika etortzeko etxera segituan, erregina datorrela, eta anai-arrebek barrabas belarraren jorraketa bertan utzirik luberritik behera amiltzen dira laborrian, eta etxean sartu ordukoz erreginaren gurdi beltza ageri da harrobiko bidetik, eta zaldi zuriek irrintzi egiten dute etxearen aldamenetik pasatzean, baina oraingoan libratu dira, eta etxean ere ez da gelditu Bordaberrin egin zuen bezala, komuna eskatzearen aitzakiarekin haurrik ikusten ote zuen, eta orain diote plaka bat ipini behar dutela Bordaberrin eta bertakoek ez dutela soldaduskara joan beharrik izango Zugastiren anaia bezala, eta beste batzuetan globoak haizatzen dituzte mendian haurrak gal daitezen bila, baina Bordatxokoak beti daude erne, ez

dute txipiena inoiz bakarrik uzten, goizaldean mikeleteak ageri direnean badakite etortzekoa dela eta ez dutela etxe ingurutik urrundu behar; ez dute nahi harrapa ditzan, eta erreginak ere behatu egin zion, eta mutikoak pentsatu zuen erreginak begiz joa zukeela bera ere, harrapatu eta odola kenduta iloba tisikoei emateko.

Erreginak agindu bat egin zuen eskuarekin, eta andere-lagunak zorro batetik ateratzen zizkion gozokiak banatu zizkien. Haurrek txalo egin zuten, alkateak mintzaldia azkendu zuenean baino bortitzago. Xoferrak atea zabaldu zien berriro, emakumezko biak autoan sartu ziren, eta autoak haurrenganainoko buelta eman zuen muturrez aurrera jartzeko, bandakoen tresnek bezala distiratu zuen, zarata ketsu bat atera zuen, barea bezain beltz urrundu zen.

–3–

Jauregi etxegilea alargundu zenean ez zeukan etxe azpiko ardandegia nork eramana, arreba neskazaharrak nahiago zuen bi umezurtzen arta hartu trenbideko langile trufariak jasan baino. Bordatxoko alaba etorri zitzaien lan hura hartuko lukeela. Jauregik neskaren espartinei erreparatu zien, eta baiezkoa eman zion.

Neska eraman handikoa zen, lana ez zitzaion neke. Bertan bazkalduko zuen, ahamen bat gazta, mahats beltza ogiarekin. Huskeria bat ematen zion. Noiz edo noiz zerbait garraiatuko zuen etxerako konejuentzako ogi gogor zakukadaz gainera, garrafoiren bat ardo, pipermin botila bat, sardintzahar kaxa osoa behin. Etxegilea berandu erretiratzen zen, eta neskari eman zion giltza lehen egunetik. Azken bezeroak bidali eta ardoa botiletaratzen geldituko zen, ez zuen atsegin goizean presaka ibili beharra. Nagusia doi bat berdindua etorriko zen, hela egiten zuen kanporik «Maria, ireki zan!», neskak mahaiak atontzen segituko zuen, «Justo nan!», eta ukabil-

kazo bat joko zuen atean. Neskak itxoin egiten zuen Justo Jauregik zurubian gora alde egin zezan, eta atea isilka irekirik teilategiko lasterbidea hartuko zuen.

Etxegilearen arrebari ondoeza egin zitzaion igande batez, elizara bidean. Etxera ekarri zuten hila, eta Mariak Bordatxora eraman zituen haurrak, ardandegia itxita. Astearte goizean ekarri zituen. Inazio eta Karmen. Eta katakume begibakarra.

Asteazkenean garaiz etorri zen Justo Jauregi, langileek ez zuten oraino lana utzi eta ardandegia hutsa zegoen. Pakete bat zekarren, «Horrenbeste zor dizut!». Neska ez zen Jauregi bezala lotsagorritu, paketea askatu eta «Oh!» egin zuen. Bertan jantzi zituen, politak ziren, zuri-marroi. Ezkerrekoak min ematen zion orpoan. Barre egin zuen, takoi haiekin Jauregi baino luzeagoa zen. «Maria, nik baditut sos batzuk!» esan zuen Jauregik artega. Hemeretzi urte zituen Mariak.

Jauregik sos adina zor egin zuen. «Etxe eder askoa goitik beheraino beria zuna!», etxegilea

maizter zen bilakatu. Jauregik ez zuen gibelik berrizkotik hasteko, zaharkitua zegoen, urdinen alde jokatu zuen gelditzen zitzaiona. Ehun hamarri oihukatzen zen gorriarentzat. Segur zegoen atzelari urdinak buelta emango ziola partiduari, korredoreak zoraturik zeuden. Gorriak sake zitala egin zuen, motza eta paretarantz koxkaren bila, baina aurrelari urdinak lasterka egin zuen pala eskuz aldatzen zuela. Bi paretakoa egin zuen ahal nolaka. Aurrelari gorriak aise harrapatu zuen, atzera eraman zuen, zabalera. Atzelari urdina besagainka sartu zen, palaren ertzarekin eman zion, pilota eskuin irten zen. Jauregiren bonbin grisa airean gelditu zen, «Mon chapeau!» Ponsolen erosia, eta jabearen gorputzak eskuinera egin zuen, jarrera zailean gelditu zen begiak zabalik. Jokalari txarra zen. Inguruko ikusleak altxa egin ziren. Mediku bat eskatu zuten. Hila zen. Korredoreak bildu egin ziren etxegilea ateratzen zuten bitartean. Apustua ontzat izan zen hartua. Atzelari urdina adorerik gabe gelditu zen, huts asko egin zituen.

Egun osorako izango zela esan zion bezperan Oletako Azketak, gaitzeko baforea omen zen eta presa handia zekarren. Bazituen zazpi baserri paseak Larraburu jo aurretik. Larraburu ez zen aberatsa, eta tripa truke zeukaten uda-udazkena izan ezik. Pozik agindu zion. Baziren hamar bat urte Otañoren azken bertsoa entzutera joana zela moilara aurrenekoz, eta geroztik hilero azaltzen zen bizkar lanera.

Bota ahala egin zuen euria, baina ontzia eguerdirako zeukaten bukatua. Lan gutxi zegoen besteetan eta ez zen ontzi berririk espero berehalakoan. Azketak paga eman eta etxera igorri zituen. Ez ote zeuden konforme. Marmies-en ardo almazenetan gelditu ziren. Eguneko lana egun erdian eginak ez zuela paga urritu behar, handitu egin behar lukeela. Launa dozena platano jan zuten. «Baziok akaatu beharrik!» errepikatzen zuen Azketaren iloba batek. Ez zioten kasurik ematen *(...bide zuzenak galduta gabiltz orain langile jendiak...),* esaera handikoa zen hura. Hiruretarako atertu zuen, eta zagi eginda zeuden oiartzuarrei bizikleta gainean jartzen lagundu zien, bagoia karrilean bezala abiatu ziren

bata bestearen arrastoan. Etxerantz hartu zuen, azaroko hotzak ez zion onik egiten eta blai zegoen. Urdin zetorren arratsalderako hala ere. Belarraren bustia salatzen zuen eguzki uzkurrak.

Bordatxoko paretik iragaitean txizagaleak eman zion. Sastraka bazterrera hurbildu zen, eta txizaren lurruna hodei usaintsu goratu zitzaion aurpegiraino. Baratzean emakumezko baten gorputza tentetu zen babarrun zarben artetik Larraburuko Migeli beha. Aurrez aurre zeukan eta ezin zion jarioari eutsi, erreberoak pazian baino zarata handiagoa sortzen zuen. Mariak ere Migelen maskuriak errape batena bazeukala pentsatu zuen, eta ezpainak irribarrera luzatzen hasi zirenean, Larraburuko morroiak eskuak jaso zituen sastrakaren gainetik ahur babadunak erakutsiz, eta ezpainak zimurtu egin ziren ostera momentu bat, algarak lehertu aitzin. Neskak ahora eraman zituen eskuak, gorrituak, babarrun lekez betetako mantala erortzera utziz. Belaunetara jaitsi zituenean, masailetan gelditu zitzaion eskuen gorria, eta algaren lurruna urtu egiten zen Migelen algaren lurrunarekin nahasi gabe.

«Hire andre hori burutik ziok!» esaten zioten higuinez moilako kastillanoek hamaiketakoa ikusten ziotenean, arrautza frijitua angulaz estalia. Orain andrea zuen, eta besteren bi seme alaba. Ez zen jadanik Larraburuko morroia, aurrera Bordatxoko Migel esango zioten. «Lastima, ezin kenduko diat!» marmartuko zuen Mariaren aitak, ez zuela erretzen erantzun zionean. Ez zuen alaba alargun zahar ikusi nahi, urte berriko lehen esposarioa izan zen.

Ikatz zakuren bat eramango zuen noizean noiz, guardak ziren gehiena harrapatzen zutenak. Moilako lana ez zen gaitzekoa, nahiago zuen morroi baino, jendearekin hitz egiten ahal zuen, Larraburu tristea zen, eta kastillanoa, erruz maite zuen kastillanoa.

Alaba bat izango zuten ezkonturtean, seme bat bigarrenean, bestea bosgarrenean.

Krika hautsia zeukan ardatz zahar bat erosi zuen Astigarragan, sagardo poxi bat hasi zen egiten urtero, eta Mariak esku ona zuenez sukal-

derako, mahai luze bat ipini zuten sotoan, barriken erdian. Pasaiako urtzaileak, kupelgileak eta igeltseroak joaten ziren maizenik. Don Telmo eta Don Fernando Más idazkaria ere azaltzen ziren. «Gabon Jainkoak!» esango zuen ozenki Don Telmok, eta sukaldean sartuta eltze miaketan arituko ziren, ogi puska bana bustiko zuten, eta «Aizu, Maria, hau guretzako!» esango zuten dastari bezainbeste usainari eta koloreari eskatu ondoan. Sukaldean afaltzen zuten, mutikoak ekartzen zien sagardo pitxarra.

Don Telmok ez zuen zaldia ekartzen, ukuiluan zeukan lotua, hanketarik eri ez ibilian. Idazkaria ekartzen zuen, «Más geyo!» esaten zuen beti, lekeda hutsa. Pasaitarrak aldiz ahakarrean aritzen ziren, biraoka, eta toka bat ere ekarria zuten Bordatxorako, bizkarrean. Belarrira mintzatzen zitzaizkion aitari, algara egiten zuten. Aita beraiekin jartzen zen mahaian majera muitte berdez eta arbi xehatuaz betetakoan, eta ama ogia eta kaxuelarekin etortzen zenean altxa egingo zen laguntzearren, baina amak lasai egoteko esango zion, eta mutikoaren izena oihukatuko zuen, ez arrebarena, alfer ahalena. Hitz

ulertezinak erabiltzen zituzten pasaitarrek aitarekin, hitz zoragarriak. Mutikoak luzaz errepikatzen zituen bere artean, ahantz ez zekizkion, frontoian bota eta Zugasti txunditzeko. Haietako batek kastillanozko euskaraz egiten zuen bertsotan, galtzei eutsi eta kanta. Amak barre handiak egiten zituen, eta pasaitarrek ere barre egiten zioten gauerako hitz motelka hasten zenari, lurrean ageri zenari txiza. Larunbataz etortzen ziren eta astelehen goizean zuten alde egingo, zikinak eta kalpartsu. Metapean egiten zuten lo, belar lehorraren berotasunean, ke gaizto bat ezin atera izan zioten aitona atera zutenean bezala, jendearen marmarrak altxarazi zituen, belauniko jarri ziren zapelak eskuan, eta zerraldoaren jarraigoa pasa zenean muturrez aurrera erori ziren banan bana, alditxarturik, zaku hutsak bezala.

–4–

Oilagorra ez zen pasaitarra, Oilagorra moilan zebilen aitarekin. Haren atzaparrek anai-arreben gerriak hartzen zituzten. Beldur zioten, aitak esaten zuen etzandako bokoiak esku bakarrarekin zutitzen zituela. Mutikoa soto bazterrean metatutako txurikinaren artean ezkutatuko zen, Oilagorrak trago batzuk egingo zituen, eta pikondoaren adarrak astintzen zituen ahots harekin, astekoari lotu zen, badoazela Bordatxoko aitona zena kanposantura daramatela, ez haren etxean zegoelakoz baina, hura bai zela gisakoa, eta erpina ordea kanposanturako bidea, bero sargoria bestetik, eta halako batez Don Mateok «Alto!» agintzen diela eskua goratuz, agintzen diela zerraldoa lurrean uzteko, denek ere izerdia xukatzen dute eta Don Mateok *(... Jainkuak berak itzegin digu Don Mateoren abotik...)* zahatoa ateratzen duela sotanapetik eta zahatoa pasa diela besteei, eta zahatoa eskuz esku ibili dela, eta emakumeetara ere ailegatu zela, baina hutsa za-

hatoa. Eta irri karkailaz lehertzen zen, aldameneko pasaitarrari bizkarrean emanez.

Oilagorra gosetu egingo zen ipuina amaitzerako, eta amak dozenerdi bat arrautza ekartzen zion. Oilagorrak mahaiaren ertzean jo eta irentsiko zituen azala kentzen nekatu gabe. Edangoituxe zegoenean erronka hasiko zen inork apusturik hartzen zuenetz. Don Telmo eta Don Fernando Más irten ziren sukaldetik, medikua pronto zegoen erlojuarena jokatzeko. Oilagorra zutitu egin zen, denak zutitu ziren. Don Telmo eta Oilagorra ziren luzeenak. Don Telmok erlojua atera zuen, kate luzea zeukan. Mutikoak uste zuen erlojua arrautza frijitua bezain zabala zela. Don Telmok eskua gora jaso zuen eta erlojua zintzilik gelditu zen denen buruen gainetik, eta erlojuaren taupadek soto osoa hartzen zuten. Don Telmoren besoak garabi baten luma ematen zuen, erlojuaren kargak altzairuzko kable bat bezala tinkatzen zuen katea. Garabia erriatzen hasi zen bere fardoa. Oilagorraren ahoa bafore baten bodega zen. Erlojua ezkutatu egin zen, Oilagorrak heiagora apal bat egin zuen, zintzurretik behera irentsia zukeen. Mutikoa izerdi zuritan zegoen.

Don Telmoren eskua azkar zetorren katearen buruan eta pasaitarren «Hori dek!» eta txaloen beroenean, tira egin zion kateari. Amak garrasi egin zuen. Katea bi ahur irten zen ahotik. Oilagorrak hortzak estutu zituen. Nork bere aldera tiratzen zuten Don Telmok eta Oilagorrak, katea trontzazerra harturik enborren bati ekiten ari. Pasaitarrak zalapartaka hasi ziren Oilagorraren alde. Azkenik Don Telmok kaskarrean eman zion ukabilaz eta Oilagorrak goitiko batean bota zuen erlojua. «Ia jan ziaken erlojua nazkarri honek!» esan zuen Don Telmok serbietarekin garbituz. Belarrira eraman zuen. Zakurra isilik zegoen, isilik zeuden behiak, mutikoa ez da mugitzen txurikinen erdian. «Musika jan zion erlojuari!». Oilagorrak ehun erloju zituen etxeko sukaldean zintzilik, euliz beteak. «Gizon hasi eta animali bukatu zun!».

Aitonari ere eder izango zitzaiokeen, Casas Baratas baino politagoa zen, Bordatxotik ikusten zen erreka gaineko aiekan kokatua, Groseko Leizaolaren villaren hurren. Teilek ez zuten harririk

behar haizeak eraman ez zitzan, tinko zeuden atxikiak, eguberritako bisiguaren ezkatak bezala. «Pake Leku» zuen pintatua beltzez atalburuan, bideari beha. Lurra ere bazuen inguruan. «Gu ere lurrarenak gera, baño lurra ez da guria!» esaten omen zuen beti. Maizter bizi izan zen, markesarena.

Teilatuko ereinotza aspaldikoan zen ihartua, bazuen astebete etxe berrian bizi zirela Don Mateo azaldu zenean. Etxearen aurrealdean jarri ziren denak lerroan. Eguzkia gora zegoen. Mutikoa Marrusen ondoan zegoen, begien parean zuen esku azkazal-beltz hura, eta pentsatu zuen gezurra zela Uzkudunek eskua eman ziolakoa, aitak zioen Marrusen bertsoak txarrak zirela, eta hain segur Uzkudunek kokotseko bat emango ziokeen bertsoen ordain, nolakoak ziren jakitera. Mutikoak hondarra garraiatua zuen eskorgan, erdi malobran egin behar izan zuten lana. Beraiengatik izan ez balitz, Marrusek ez zion etxeari sekulan lehorra emango.

Don Mateok zakar behatu zien betaurreko erorien gainetik, txartelak emateko galderak egiten zituenean bezala. Inazio Jauregiri, elizatik

irten, frontoiraino etorri eta pilota kendua zion bezperetan jokatzen ari zelakoz. Azkar egin zuen etxe-baratzearen bedeinkazioa. Sukaldera igan zen Marrusekin eta gurasoekin. Anai-arrebak anai-arrebaordekoekin gelditu ziren jolasean, aurre bazkalduak zeuden.

Etxe polita zen, eguteran, uraren kanila zuen sukaldean, mutikoak ez zuen ur bila joan beharko, baina aitak ez zuen ukuilurik nahi, fijo hartua zuten moilan. «Behiak ahotik ematen dik esnia!», laurak salduta Larraburukoei eman zien erregalian uztarri landu hura kopetakoekin. Mutikoak bazekien arreba ez zela esneketa joango.

Don Mateo bidean gora ezkutatu zenean, aitak oilarra ekartzeko agindu zion. Arreba eta biak joan ziren oilo eta konejuen txabolara. Arreba ez zen ausartu oilarrarekin, gaiztoa zegoen lumak harro eginik. Bazterraren kontra eraman zuen ihes egin ez ziezaion. Lepotik heldu zion. Hegoei eragiten zien, eta belaun artean estutu zuen, kafe errota bezala. Lasterrari eman zion oilarra galtzarbean zeramalarik. Aita igitaia zorroztten ari zen. Arreba heldu zen. Galtzarbean hartu zuen aitak ere, luma batzuk kendu zizkion lepo-

tik odolkiak ziruditen atzamar haiekin. Epai bakarrean moztu zion lepoa, burua zintzilik gelditu zen hegoak astinka. Odola zurrustan irten zen. Aitak ataria arrosatu zuen oilar odolaz. Arreba poztu egin zen, oilar hura erotua zegoen, zanpaka ibiltzen zituen oilo gaixoak.

Jauregitarrak zakarrak ziren, balio zuten lanerako. Migelek ez zituen inoiz erasiatu, koskortuak zeuden Mariarekin ezkondu zenean, ez zuten aita aitortzen, eta bi ziren. Mariaren negarrak ahituko ziren etxegilearen semea lantegitik desorduan etorririk ukabila zabaldu eta bi errealekoa erakutsiz «Ni ez naute Luzuriagan gehio zapalduko!» harrika jaurtiki zuenean, leihoaren beldurgarri.

Jauregitarren lagun joan ziren Pasaiara. Gizonezko ugari ikusten zen bagoiei bultzaka eta porlan zakuak bizkarrean garraio, zapelak, idiak, kupelak, gerrikoak, aida eta esti, Oilagorraren atzaparrak inguruko baserri guztiak moilen gainera hustu bailituen edalontziko sagardo pizarra bezala.

Esan lekuan zegoen aita, hautsez betea, ontziaren ondoan. Ontziak zer izena zuen galdetu zien aitak seme-alabei, eta umeen ezpainak batera mugitu ziren, irribarre egin zuten Jauregitarrek ere. Infanta Isabel kaiaren arrasean gertatzen zen, itsasbehera zegoen. Tximinia luze hark erreginaren auto beltzak baino ke beltzagoa botzen zuen. Jende oste handia zebilen zurubiaren inguruan. Kubertako kalostran zuriz jantzitako gizon zahar bat azaldu zen, eta isiltasuna eskatuz izen kantari jarri zen. Mantal zuria zeraman beste gizon zahar batek hartzen zituen pasaiariak zurubira zihoazenean, begiak ikertzen zizkien tresna txipi batekin, eta «Sano!» oihukatuz aurrera igortzen zituen bizkarreko bat emanda. Inazio Jauregi, entzun zen. Amak pakete bat luzatu, aitak eskua estutu. Inaziok beti zituen urtsuak begiak. Medikuagana hurbildu zen. Karmen Jauregi, eta amak lepotik heldu zion. Ontzian zegoen Inazio.

Zurubia jaso zuten. Aldia egin zuten zain, jauzian iragaten ahal zen kaitik ontzirainoko tarte hura erdian, elkarri beha hitzik gabe. Ez zen Karmen Ameriketara zihoan emakumezko bakarra.

Infanta Isabelek hiru tutu luze jo zituen, estekariek loturak askatu zituzten, marinelek alfer antzean bildu zituzten estatxak. Lehorrekoak agurka hasi ziren, ontziak irteera bilatzen zuen branka zuzenduz. Pasaiariak popara bildu ziren, beso baso. «Ametsak ez dute jaberik!» esan zuen aitak ahapetik. Ontzia leun zihoan, kulunkarik gabe itsaso salda batean.

Mutikoak menditik ikusiak zituen irteera haiek ez bezalakoa zen. Zenbait ontziren izenak irakur ahal zitzakeen, ez zen oihurik, kaiak ederragoak ziren bertatik. Jauregitarrak ez zeramatzaten gerrara Zugastiren anaia moduan, kornetina ez zen deika ari, eta oraingoan ere jendetza handia baldin bazegoen kaietan, ez zen soldadurik ageri. Infanta Isabel bakarrik zihoan eta gainerako baforeak muturik gelditu ziren, loturik gelditu ziren, ez moro gerrara zihoan ontziari jarraiki itsas uberan Bordaplatatik hiru miliataraino, urtezahar gaueko tutuak baino tristeago tutu joka, «Bizitzan ikusi dedan gauzarik tristiena!». Kai hartan kafe usain zoragarria aditzen zen, amak ez zuen negarrik egin Zugastik orduan egin zuen bezala, tronboi baten ezpainak baino

distirantago islatzen zen eguzki bizkarra uretan, eta algara egin du Zugastik, eta algara egin dute denek, maisua erori egin zen zangoa marmitan harrapatua Ameriketaraino heltzen diren uhinak sortuz, erreginaren bi zaldiak atzean uzten dituzten uhin bizar zuriak.

–5–

Larruzko zartailuak bere mustatxaren adarren luzera zuen ia. «Atensión muxaxos!» egiten zuen oihu, eta zartailuari eragingo zion. Labeen giltzak ezin erabil zitzakeen beste inork. «Mesié Dibuá!» esan behar zitzaion.

Matxeroen mutil jarri zuen lehen egunetik, hondarra bota behar izaten zuen palaka, galga potxetara isur zezaten. Matxeroak zokor-mailu moduko batekin zanpatuko zuen, eta moldea jasoa zenean ketan iraungo zuen oraindik tegi osoak, elkar ikusten ez, eztulka, ezin eztarriaren lakarra kendu.

Nagusia egunero etortzen zen autoan, xoferrarekin, trajedun. Bulegora igaiten zen eta berehala azalduko zen galtza urdinetan sartua, eta burdinolan zehar ibilki emango zuen goiza. Labeetara heldu zen eta Mesié Dibuárekin aritu zen. Ez zien ulertzen. Hurbildu egin zitzaion, eta galdetu egin zion, «Hi berria haiz, zenbat urte dituk?». Gezurra erantzun zion, behinola Inazio Jauregik bezala, «Hamalau!», eta orduan nagu-

siak, «Victorio Luzuriagak berak!», eskorga bati helduz, «Badakik, hemen lana egin biharra ziok beltz!».

Mesié Dibuáren zartailuak karburo poteak baino tiro handiagoa egiten zuen lurrean.

Sakristian bilduko zituen, portzelanazko irudi akastuen azpian, argizari usain higuingarrian. Tartean ohi zen Herrerako Zabaleta ere, ahaide hurkoengana azaltzen zen igandeetan. Katilua estutuz eskuak epelduak zituenean, lokotxaren gizeneko bizkotxoak, hamar, sortuko zituen kajoitik, banaka, mahai gainera. «Ia Zabaleta, zer dan Euzkadi?» galdetu zuen kafesnearen keak lausotzen zizkion betaurrekoen gainetik behatuz. Lokotxa hondoratuko zen kafesnetan, Don Mateoren plazerezko murrungek gelako zokolu guztietan egiten zuten punpaka, lokotxa aterako zuen katilutik, eta behiaren gorotza iduri, bizkotxo bustia astunez erortzeko zegoenean, Don Mateok lepo joko azkar bat egingo zuen ahoan hartzeko mihia atera gabe eta mutikoen iritzia zen behiaren gorotza bezalaxe erortzen zela Don

Mateoren ahoan. Denek isilik zirauten, eta ez zitzaien lokotxa saririk luzatuko. Don Mateoren atzamarrek kafesnez bustiak amaitu behar zuten beti, katiluko simaur kondarra zurrupaka irentsiko zuen. Mataza egindako zapi bat aterako zuen sotanapetik, «Euzkadi da...», hatzak milikatuko zituen «...guztion aitak...», betaurrekoak igurtziko zituen «...euzkotarrontzat emandako baratza!», erantzungo zion Don Mateok bere buruari.

Santio egunarekin Hernani aldera hartuko zuten goizetik, oilasko erdi bana gosari. Bihurgunea ongi begipean zuen pendizean jarriko ziren, autoek moteldu egin behar zuten, bertatik bertara ikusten ahal zituzten Constantini eta Goux lehian, De Buck-ek gaizki hartu eta ipurdiarekin bazterra jo zuen hartan, anaia aurrenekoz eraman duen honetan. Amilka jaitsi dira denak, soldaduak eta motoristak ere berehala ditu gainean, autoak eztul batzuk egiten ditu, ezin du. De Buck atera egin zen, betaurrekoak jaso zituen kasko gainera eta ostiko bat eman zion amorruz atzealdeko firrila aldagarriari. Orduan Arrietak

zahatoa eskaini dio eta De Buck-ek atzera bota du burua edateko, oiloek bezala. Beste lasterkariek ia gelditzeraino moteldu behar dute, erdi trabeska gelditu da De Buck-en auto gorria. Itzuli zion zahatoa, eta oinez urrundu zen, buzo zuria hautsak zikindua, autoaz ezaxolatua. Bugattiak ziren onenak.

Astebete lehenago hasiko ziren saiotan, eta goizaren lehen argiazkorrian, demonioko Delage, Bugatti eta Sumbean haien orroek iratzarriko zituzten Pake Lekukoak eta Pake Leku inguruko hontzak, Astigarragako artadiak harrotuz Pasaiaraino etorriko ziren trenari iseka, labezomorro koloredunak. Zenbaitetan Molinaora iristen ziren gasolina hartzera, labeetakoak bidera irtengo ziren, eta honantzakoan urdina ate nagusian bertan gelditu zen. Pilotua zutitu egin zen. Mutila inguratu zitzaion. Kapotaren hegal bat jaso zuen eta ke bero bat altxa zen tubo ilun haietarik, zerriaren hesteak iduri. Pilotuak zerbait esan zion mutilari, ez zion ulertu. Autoaren muturrari erreparatu zion, 8 handi bat zuen gorriz, eta mutila lasterka sartu zen atelierrean barrena «Jean Graf, Jean Graf!» oihukatu hatza ateari buruz lu-

zatua. Mesié Dibuáren sabelarekin egin zuen istripu. Zartailua galdu zuen Mesié Dibuák. «Jean Graf atean dago, matxura egin zaio!» esan zion itoka. Dibuári mustatxera jo zitzaion eskua.

Pilotuak haserre ematen zuen. Dibuá eta Luzuriaga bera heldu ziren langileei barrura itzultzeko aginduz. Jean Grafekin hitz egin zuten. Mutikoak ez zien ulertzen. «Nik uste det dinamoa dala!» esan zien.

«Beidok!» esango zioten mundu guztiari haien begiek Txingurriko bolatokian edo tranbia hartzerakoan edo funeralen batera jaitsi behar zutenetan. Ez zegoen Herreran aurre egingo zien kopetarik. Umetan argitu gabetanik erreklamoak ipintzera eta mutiletan iluntzen hasitakoan neska laguntzera kale-zozo haiek mendirantz ausartzen zirenean bazen aski lahar eta sasiondo harrika ezkututik emateko. Artola, Zugasti, Arrieta, denek hartuko zuten parte. Zugastik hiru eta lau kolpe jotzen zituen ugeldian zopak egiten norgehiagoka ibiltzen zirenean.

Bazetozen Tellerikoa eta dendakoa eta santanderinoaren alaba beren ipurguardiarekin *(...alde batera firme uzteko neskatxekiko jolasak...),* beti zekarten neska baino mutil gehiago. Herrerakoak zain gelditzen ziren neskak jostundegia noiz utzi bidean gora jarraitzeko. Lehendabiziko harrikazoak ahulak izango ziren, gaztiguzkoak bezala neskek alde egin zezaten. Orduan, aurrealdea libre zenean, latza txingortea, bidearen alde banatarik, besoak eten artean. Herreratarretako bat bide ondoko sastrakadian ezkutatu zen. Arrietak mendean zeukan, ez zion barkatu. Zugastik makil bat hartu zuen, eta harriak ahituta gordelekuetarik irteterakoan, sastrakaditik su txipi batzuk sortu ziren beren danbatekoekin. Tentemusu gelditu ziren, Arrietaren auhena entzun zen sasiondotik hoska. Herrerakoa tira ahala zihoan ihesi, ez zuten ezagutu. Zugastik laster egin zuen Arrietagana makila jaurtikiz. Arrietak belarriari eusten zion, «Eman egin zidak, eman egin zidak!». Zugastik eskuak kendu zizkion belarritik, odola zuen atzamarretan. «Zulo ederra egin dik!», esan zuen Arrietaren belarria aztertzen zuela. Jabeak negar egiten

zuen begiak urtuan. «Hementxe ziok bala!», eta alimaleko arantza bat atera zion gingiletik. Denei erakutsi zien, eta Arrieta bera ere barrezka hasi zen. «Goazen neskengana!» esan zuen Artolak, «Holako zuluak ez dik behar belatakorik pe!».

Trenbide ertzetik joango zen lehen oilaritean, gorosti makila eskuan, baserrietarik irteten zitzaizkion zakurrei zemaika, orkatila harri koskorretan bihurrituz, bakarra tunelaren bazterretik, irristatuz trabesa bustietan, presatua, presatua tranbia zaharra bezala ilunpean gora. Atotxako frontoian jardungo zuten argitu ere baino lehenagoztik, Groseko atelier guztietako mutilak bilduko ziren, kuartillo bat ardo trabesa, galletekin. Berotzen hasten zuenekoz hondartzara joango ziren pilotan izerditu ondoren, makila bana hondarrean tinkatu, arropa zintzilik ipini eta lasterka zoroan abiatuko ziren uretara, Fiat, Garnier, Panhard, Stinus eta Massé garajeetako enkargatuek ateak zabaldu zain aspertuan egotearen ordez.

Compañia Eléctrican ez zuten autorik konpontzen, baina urari indarra kentzen zitzaion eta

indarrari argia. Burdinolakoa baino lan dotoreagoa zen, eta induzidoa, kilobatioak, trifasikoa ikasten hasiak ziren ahoentzako, harako hautsa, potxa, galda haiek hozkia ematekoak ziren, burdina herdoildua bezain latzak bilakatuko ziren.

–6–

Tximistak kable bat botea izan behar zuen San Juan aldean, enkargatuak berarekin eraman zuen. Galernak gogor jo zuen gauean, posteak makurturik zeuden, eroritakorik ere bazen, lurrean baino kableetan bailuten euskarria: kablea etena zegoen, itsasoraino zetorren harkaitzetan behera, farotik hurbil. Enkargatua ur bazterreraino joan zen, eta bulta batez beha egon ondoren kablea hartu zuen eskuan. «Itxoin zak hemen ezer ikuitu be!» esan zion, eta mendiko kasetara abiatu zen bidezidorrean gora. Gizon zalua zen. Goialdean karabinero bikote bat zeukan zain, eta haien aterkipean gelditu zen bidean solastari. Mutilak ez zuen gogoko langarrak bera zezan, lana aurreratuko zuen. Kablea ukitu zuen, ez eskuarrez, «Atzaparra itsatsi egiten baitzaio indarrari!», irakatsia zioten bezala baizik, kax-kax ate joka eskugainarekin. Enkargatuak hartua zuen, baina badaezpada. Ez, ez zuen indarrik. Heldu zion bi eskuekin, eta sokatiran ekin zion. Kablea astuna zen, altakoa seguruenez, eta arro-

ka tartean trabatua, nekez bildu zituen metro zenbait. Posteen tartekoa ez da hain luzea, laster ageri behar zuen kablearen kabuak. Ez du ikusi, baina ageri da. Orduan jo zion, «Itsasoa tierra baita!».

Enkargatuak izututa kendu du zigarroa ezpainetarik, eta bidezidorrean behera malkartu zen esku-oinez. Karabineroak nekezago mugitu ziren, mosketoiak eta aterkia garraiatu behar zituzten. Mutila etzanik zegoen zekor zauritu bat dirudiela marrumaka, lurra ostikatuz, kableari atxikia. Enkargatua haren ondoan gelditu zen arnaska, buzo bustiaren botoiak askatzen hasi zen. Karabineroak ere iritsi ziren, eta bat makurtu egin zen mutilagana. Enkargatuak, kamiseta lehorra burutik ateratzen zuelarik «Quieto que te pega!» ostiko bat luzatu zien mutilari hurbiltzen zitzaizkion eskuei. «Tapa aquí!» esan zion aterkidunari, hartzen du kamiseta esku-zorro, heltzen dio mutilari ukondoetarik eta arrastaka eraman zuen, baina zakur amorratuaren gisan zegoen itsatsia kableari. Kolpea eman dio besoetan, trabatu da kablea, libratu da mutila. Osoan belztua zegoen. «Esan diat, esan diat ezer ez ikuitzeko!»

dio enkargatuak, «Altxari, altxari hortikan!» altxa eta bertan akabatu egin behar balu bezala. «Ezin det, kaka eginda no!» diote Markesaren semearen zaldiarenak bezala adurrez likistutako ezpainek zotinka.

«Ito behar gaituzte oraintxe belarrimotzez eta mingainluzez!» esan zuen Don Mateok Casa Barataseko baratzeetara ematen zuen leihoa itxirik. Don Mateoren imintzioak ikusten aspertuta, bazkaritara alde egingo zuten pepinilloa landatzen besterik ikasiko ez zuten Casas Barataseko belarrimotzek.

Betaurrekoak kendu zituen jesarritakoan, sudur minberatua pailakatu zuen. Ez zion Zabaletari behatu, burumakur gelditu zen une batez, eta hasperen luzea eginik burua jaso zuenean begietara behatu zien banan bana. «Ba al da beste inor ebanjelioa ulertu ez duanik?», eta orduan Zabaletak ez beste guztiek behatu zuten zolara. Don Mateok mahai gaineko liburu beltza hartu zuen, zinta gorriaren muturrari tira zion, zabaldu egin zuen. «Bihur zaizkiozute Zesarri

Zesarrenak, eta Jainkoari Jainkoarenak diranak!». Zabaletari behatu zioten denek, Zabaletak ez zuen ulertzen zergatik esan zuen Jesukristok Zesarrenak Zesarri *(...erreinu ontan leziyo txarra nai digute bota...),* ez zegoen konforme. Egoskorra zen, denek ere nahiago zuten galderarik eta zalantzarik gabe, Don Mateo ez zen eztabaidak izutuko zuen apaiza, berandu heldu behar zuten bazkaritara. «Ebanjelioak dio Zesarrenak, bereak diranak, ez baituzu besteren ondasuna desiratuko, Zesarri bereak, ebanjelioa hartu behar da justiziaren ispilu, speculum iusticiae!». Zabaleta Herrerakoa zen: «Bai, baño zer da Zesarrena?».

Pasaiako moilan lotua ontzia, ontziko mastan lotua tximinoa, Gineako okume enbor etzanen gainean jauzika, grilloa hankan. Poste zutean behera etorri zen ofiziala, trepadoreak kendu zituen hanketarik, mutilari luzatu zizkion. Haria askatuz joan ziren baserrirantz.

«Honenbestekoa bai!» zuen Txirritak burua, eta asko esan ere ohi zen «Hemen zetorrek Txi-

rrita bere buruarekin!», ahapetik badaezpada. Ahaideak zituen Arriagakoak, atarian zegoen jesarria zizarra gozo txarroa mahai ustelduaren gainean. «Zer degu Txirrita, lasai, lasai?» egin zion mutilak ofizialari irribarrez behako maltzurra zuzenduta, eta Txirritak halaxe erantzun zion bere burutik, «Baita hi ere, nere galtzetan sartuko bahitzake!».

Salda pixka bat hartuko zutela amonak, baina ofizialak nahiago zuen lehenbailehen amaitu. Balkoian jardun zuen kontadorea ezartzeko, mutikoak pipiak jandako habeetan josi zuen haria, begietara zetorkion hautsa. Ukuiluan eta sukaldean nahi zuten argia Arriagan. Txukun ezarri zituen krisketak mutikoak. Presa ondoko transformadorera abiatu zen ofiziala indarra botzearren, eta baietz, mutilak, «Edade hortan!», salda pixka bat.

«Zeñek piztu nahi du surik gabe?» eskaini zuen ofizialak, eta Txirritak etxeko jaunak behar zuela, aitonak krisketari eman zion, buelta erdia, hantxe zegoen bonbilla, buelta erdia, ederki ematen zuen esnetan bustitako iraztor sorten ar-

tean, buelta erdia, madari zuritua zirudien. Ez zen ilinti bustia baino gehiago biztu.

«Ez apuratu, gizona, eletrizidadiak ez du indarrik egun argiz, iluna behar du, ilunak dakar argia!» esan zion ofizialak astiro. Aitona zurubian gora ezkutatu zen purrustaka, eta amonak eragin zion krisketari. Hamabiko bi kanoiduna besapean azaldu zen Arriagako aitona, «Ikusi beharko degu ba ilunak zer dakarren!». Mahai gainean utzi behar izan zituzten alikateak, mailua, trepadoreak eta sobranteko haria.

Iraztor sortetarik erortzen ziren zola zikintzen zuten tantak zenbatzen eman zuen arratsaldea. Txirritak eta bere lehengusuak gazta oso bat zuten irentsia haien aurrean, baina ez zegoen gosetua, ez zen giro sukalde hartan, beldur zen, Arriagako aitona aztia zela zioten, Kredoa atzekoz aurrera esanda hanka hautsitako ehiza zakurrak eta sugeak heldutako pertsonak sendatzen zituen eta erne, ez zien «Tiro bana!» emango noski baina, jarri zituzten hariak zaharrak ziren, hala ere ofizialak atelierrean froga eginda zituen ekarriak bonbillak, ez zuen bonbilla berririk ekarriko tranpazko antolamendurako, beldur zen eta

Txirritaren eta ofizialaren arteko solasak ez zuen trankiltzen, bazekien beroan ez ezik hotzean ere nolako indarra duen urak, elektrika nork asmatu zuen ez baldin bazekiten izorratzea zuten, berrogeita zazpigarren tanta ez zen horratikan erortzen, iraztorretara jaso zuen burua eta mutxikina erretzen hasi zitzaion madari zuri hari, gorritzen hasi da, argiak bere hezurrak erakusten ditu, denek behatzen dute sabaira, gorria zuritasun zabala egin da, sukaldea argitzen hasi da, «Edisonek, Edisonek!», eta iraztor sortak utzirik bonbillara doaz euliak furrundaka, benetako madaria baita orain, bizia, beroa, ilunak dakarren izarra baino beroagoa.

–7–

«Aberastuta etorri balitz hartuko zuten!» edo «Dirurik ekarri balu ez zuten semeordekoa izango!» komentatzen zuen ordurako jendeak, Herrerako dendan entzuna zela zion arrebak. Amak ere jakin egingo zuen berehala, zerbait asmatu beharra zegoen esan ziezaioten baino lehen, lotsagarri ari ziren gelditzen hala ere. Amaran ibiltzen omen zen.

Pension Euskaldunako etxekoandreak latz hartu zuen, ez zion gauza handirik argitu. Klientе asko zituen hark, bazuen nahikoa lana inori pausoa neurtzen ibili gabe. Eta ea zer zen, hainbeste galdera. Kalera jaitsi zen. Zer duda egin, Euskaldunako klientea izan behar zuen. Eta zintzo ordaintzen zuen, antza. Easotik eskuin hartu zuen, tabernetara. Ilunabarra zen, egarritua zegoen.

Kartetan ari zen. Bizkarrean ukitu zion, eta baiki, itzuli zenean artabizarrezko bibote luzeek eta kokospeko painuelo gorriak indiano esaten zioten hari. Zaharkiturik zegoen. Zu halakoa eta

ni halakoa bota zion, ezagutu zuen berak ere, «Ama negarrez dakau!», haren begi urtsuei behatuz. Ez zuen hitzik atera, «Pika!» esan zion mahaikide batek, eta jiratu egin zen ostera. «Eh!» egin zion eskua bizkarrean tinkatuz oraingoan, baina atzera bultzatu zuen txangurruaren atzaparra zirudien beso iletsu harekin. «Aizu, hortara ez degu ezer bihar!», eta irten egin zen. Gizonezko talde asko zebilen Salud kalean, pensio osoa zenbatean zeukan galdetu behar zuela gogoratu zen, zortzi pezeta bai gutxienekoz.

Negu lehena zen, Herreratik gora eta ermita gaineko bidetik ikusi ohi zuten. Ez zuen sosik izan behar, arlote zebilen, eguzki hotzetan egoten zen ermitako paretan etzana, etxera beha. »Etorriko haiz ba!», Jauregitarrak zakarrak ziren ordea. Bila joan zitzaion bigarrenez, baina urrundik ezagutu zuen, altxa zen, badoa. Gazteak ekin dio aldats gora hortzak estututa, harrapatu behar du horratikan, korrika hasi da bestea ere Molinaorako bidezidorretik, ezkutatu egin zitzaion.

Goiz erdian galega etorri zitzaien txurikinaren bila senar-seme marinelentzako kamainak egiteko. Sotoan jarri zen zakuak betetzen belauniko, mahukak jasorik, ate irekian barrena sartzen zen argitasun hotzari ezaxolatua. Itzal luze batek izoztu zizkion besoak. Burua jaso zuen. Sustatu egin zuen, atea beteko gizon bizardunak. Altxa egin zen belaun minberatuak laztanduz. Maria patata zuritzen ari zen sukaldean. «Eskeko bat dezu atean!» esan zion galegak.

Sartzeko esan zion, busti egin zitzaizkion begiak, ez geratzeko atean hala, sartzeko. Inazio Jauregi jesarri egin zen. Jota zegoen. Salda atera zion Mariak. «Aste Santuko Kristo zirudiela!» komentatuko zuen galegak Herreran.

Gauerdia iragana ordurako, aspaldi zuen behintzat oheratuak zirela. Anaia gaztea mantapean, zerraldoarena eginez. Zakurrak ez zuela zaunka atertuko. Zankutsik atera zen balkoira. Iluna zegoen. Gaztea zen atarikoa, «Etorri egin bihar dek, txalupa Jaizkibelen gelditua zakau!». Zabaletarena ahotsa. «Tabakoa!», pentsatu

zuen. Ama ere jaikia zen. «Lana det!» esan zion janztera zihoalarik. Erreminta batzuk hartu zituen. «Garai hontan!» marmartu zuen amak.

Zabaleta ere isilik, hegoa sargori. Ez zuten karabinerorik topatu behar *(...parte gaiztuakin naste, irabazten dala uste...),* moila bazter utzirik trenbidetik hartu zuten Pasaian. Urratsa harri koskorretan ezin berdinduz, mozkortutako marinelak ziruditen. Izerdi batean ekin zioten Lezotik gora. Bidezidorrak orbel errekak ziren. Zabaleta maiz gelditzen zen, tu egiten zuen. Ahuspez zeraman linterna, pantailatik eutsita, argiari hatzarteko zirrikituak uzten zizkiola. Hego haizea arren, garbi heldu zen itsasoaren marruma, goien zeuden. Biztualdi batzuk egin zituen Zabaletak linterna jasorik. Zakur zaunka batek beherago erakarri zituen. Argi etenka aritu zen berriro. Eskuinagotik erantzun zuten, lehorretik hain segur. «Erne, zulo haundiak zeudek hemen!» gaztigatu zion Zabaletak, eta jauzika amildu zen itsasorantz.

«Hiru ordu!» esan zien Muguruzak, Herrerako zurginaren semeak, eskumuturrekoa linternaren argitan erakutsiz. Itsasbehera hasia zen. Hirurek

tira behar izan zioten txikotari txalupa bertaragotzeko, handia zen. Harkaitz gain batetik egin zuten jauzi barrura. Kaxak ziruditen toldo ilunaren azpikoek, «Tabakoa!». Arraun bakarra zeukaten tostapean, «Apuilean juten ahal zinazten!» esan zien. Muguruzak agudo hartu zion buelta, «Eskuekin ziatuz azkarro!».

Txalupa hogei zaldikoa zen gutxienez, berritua, bakanak ziren arrankeko motorra zeukatenak. Arrankeari eman eta eman eta ez omen zion heltzen. «Gasoila badu ordea!». Txalupa batek susmo gaiztoa eman, ordu haietan, eta kostapean ezkutatu zirela motorra itzalita, baina gero ez omen zuen arrankatu nahi. Egia zen, han ez zen indarrik iristen kontaktoreetara. Motorra askatu zuen kotoi koipetsuan bildutako linternapean. «Konponduko al dek?», lanean ari zelarik alukeriak entzun beharra, «Erne, zulo haundiak zeudek hemen hi eta hire kajak gordetzeko ni esnatzera etorri be!» esan zion burua jasotzeke. Baina Zabaleta Herrerakoa zen «Eta txalupa, zer egin behar genin txaluparekin, bizkarrean hartu?».

Eskobiletako ikatza hauts eginik zeukan. «Kobre puska bat, latoia, burnia, zeozer!». Aparejuak aurkitu zituen Muguruzak. Zatitu egin zuen beruna labanarekin, arrankeko motorraren goiko aldean ahokatu zituen. «Emaiok aber!» agindu zion Zabaletari. Logaleak erreta zegoen.

Langarra hasi zuen, bazetozen Pasaiako txintxorroak txipiroietara. «Ailegatuko ahal gera!» bota zuen Zabaletak hasperen batean, eta «Etzekit, plomoa urtzen xamurra dek!» esan zien benetan kezkatua, baina Muguruza bozkariotan zen txalupak aitzina egiten zuelakoz, eta zirika hasi zitzaion zenbat kendu behar zien lanagatik, zenbat nahi zuen gau hartakoa isilean gordetzeagatik, kaxa haietako batekin nahikoa ote zuen. «Utzi hakiok pakian!» esan zuen Zabaletaren ahotsak maltzur, «Haure sotanapekua dek, baño eztek harrikariya!», eta barre egin zioten biek. Txalupa geldo zihoan, uhinik sortu gabe.

Portua irakiten bezala zegoen lehen azkorrian, zerrazoia altxatzen ari zuen. Trintxerpeko moilara zuzendu zuen Muguruzak ontzi estekatuen bazterretik, Zabaleta txapitola gainean jarri zen baforeekin ez jotzeko, arrauna eskuetan.

«Kamioiak aldegina behar dik!» esan zuen Zabaletak, eta Caralluren atoiontziari ondoratzeko agindu zion Muguruzari. Zabaletak jauzi egin zuen atoiontzira, eta txalupa loturik ondoko baforera igan zen. Lehorreratu zenean errainu bat zen. Arrandegian kamioiak kargatzen ari ziren.

Ez zuen ile bat idorrik, aldatu egin nahi zuen lanera abiatu aurretik, baina Muguruzak egoteko esan zion, besteak ere blai zeuden, lagun ziezaiela kaxak ateratzen, «Gainera, hitzegin bihar diyau lasai!».

Zabaleta eta buzoaren mahuka hutsa gerrian lotua zekarren gizon ihar bat azaldu ziren, «Hemen dek Carallurekin!». Atoiontzian bertan gelditu zen Carallu, Muguruzak eskaintzen zion lehen kaxa hartzeko. «Eztek tabakoa!», pentsatu zuen Muguruzaren ahaleginari ohartua. Caralluk esku bakarrarekin kako egin eta atoiontzian barruratzen zituen. Kaxa bati heldu zion berak ere, «Eztek!». Pilotuak «Descaralléume a outra mán!» oihukatu zuen, eta kaxa utziz ahora eraman zuen eskua. Kaxa ipurdiz gora erori zen txalupan. Jasotzera makurtu zen. Tente ezartzerakoan oholek zapart egin zuten eta legatz burua

bezala zabaldu zen kaxa, letagin zorrotzak agerian. Larruzko funda beltz mordo bat sakabanatu zen panelen gainean. Carallu mekajuenka hasi zen, Muguruza eta Zabaleta funda bilketan saiatu ziren. Funda bat hartu zuen. «Eztek tabakoa!», kulatak pistola salatzen zuen.

Zain urdin batek zatitzen zion kopeta, zimur baten erretenik ez eta bekain gorrietaraino zetorkion izerdi ihintza. Amoniako usain minak zen iratzarria, eta eskuen laztanak belaunean. Arraunean ari zela zirudien, aztaletik izterrera eskuak. Ziztada zorrotz batek jo zion buruan, eskua jaso zuen eta hatzek telazko lotura bat ukitu zuten. Orduan ohartu zen, irri ostalariak, eskuen pailaka belaun gorrian zela, belaun handituan gora eta behera bernaren ore iletsua moldatzen ostalariaren esku gizenak. Galtzak aldameneko ohean zeuden, pila batean. Atean, isila, alaba zeukan, amak bezala «Lucero!» esaten zion trufari hura. Esku zuriek azpilean ziharduten etengabe, hatz-niniek ozta igurzten ziotela koskor minduan. Hotzikaraz laztu zuen legamia baten

oldarra hasi zen nabaritzen, izuturik, gorputzeko ile bakoitzaren zuztarrean. Neskak irri egin zuen ahoa eskuarekin estaliz. Amak behorraren janaria biltzera igorri zuen lanari uzteke, irribarre gazteari, amoniako usaina barreiatzen zuten esku gizenak iztairaino lerratuz, hara behatu nahi ezik, legamiaren indarra harrotzen ari zen hartara. Ferra hotsa sumatu zen atarian, eskuak izterrean atzapartu ziren, buruz buru zain urdinak zatitzen zion kopetarekin ostalaria eta alimaleko lotura harekin gaztea. Ostalariaren senarraren eta enkargatuaren ahotsak sartu ziren etxean, ostalariari hots egin zioten. Tentetu egin zen, galtzak hartu zituen aldameneko ohetik. Hurona ongi portatua zen, hiru koneju harrapatu zituzten, aditu zutena. Gazteak enkargatuaren iseka jasan beharko zuela pentsatu zuen, behorrak lurrera bota zuelakoz. Orearen beroa ez zen epeldu ostalariak, irriz, «Lucero!», galtzak gainetik zabaldu zizkionean. Atzea eman zion, eta Don Telmoren zaldi hark bezain harro kulunkatu zuen ipurdia ostalariak.

–8–

Asteartean eguneko txanda zuen eta bertan egon beharra. Hernanin goizalderako ixten hasiak zirelakoa heldu zen, hots egin zuten Ereñotzura baina han ez zekiten ezer, bazitekeela bakarren batzuek, esan zietena. Ez ziren bederatziak soinua entzun zutenean, «Hemen dituk!» esan zion ofizialak, «La Marsellesa!», eta zubira irten ziren. Bidean behera zetozen jazpanakoak, langile samalda bat zekartelarik ondotik. Aste Santua zirudien, Hernanikoek prozesio legea egiten zutenean Ergobiko sagardotegietaraino, arkume larrutua ohol bitan etzana, lukainka puskak makiletarik zintzilik, barrako ogi bana kandela gisa, putekin. Hiru koloreko española zekarten. «Muera el rey!» oihukatzen zuen setan emakumezko batek.

Zentralaren aurretik iragan ziren sagardotegietarantz. Atean zituzten. «Viva la república obrera!» aurpegiratu zieten ukabila erakutsiz. Ofizialak itxi egin zuen. Tranbia betea zihoan, ordurako, Donostiara.

Baserritarrek maltzur behatzen zieten. «Errepubliká!» esaten zieten Hernanikoek, «Errepubliká!». Ez zuten atejoka handirik egin behar izan. Laster bete ziren oihuz Pagua, Otaño, Garratxena, Gurutzeta eta Oiharbideko upeldegiak. Errepublikaren banderak ile bustiaren harroa hartuko zuen metaren gailurrean.

Isiltasuna eskatu zuten, ez zitzaion ongi aditzen, hasteko berriz eskatu zioten. Orduan mahai gainean jarri zuten Indalecio Prieto, bonbillaren azpian, basoa eskuan. Ixo guztiak isildu zirenean «Proletarios!» errepikatu zuen, «Legeak sortu aurretik, erregeak agintzen zuten!». Isildu egin zen jendearen ukoa bare zedin. Zakar astindu zituen besoak, «Eta horregatik errege botako dun legerik ez omen do!». Entzuleek basoa kupelen baten kontra uste zuten. «Entzun!» esan zien basoa belarri parera eramanez. Indalecio Prietoren izerdiak hamabiak jotzen zituen Hernaniko elizako pazko-kandelaren malkoa zirudien. «Entzun!», eta kupelaren zurrupita ere mututu egin zen, «Esa campana que se oye

es la campana del Kremlim!» marmartu zuen entzule txundituen buruetara makurtzen zelarik. «Viva Rusia!» egin zuen orroa bonbilla jotzeraino tentetuz.

Ez lanean, moilako trenbidea luzatzen, ez etxean, ardotan bustitako ogi koskorra haren postrea, zuen hitzik aterako. Zail ohitutako gizona zen, etxekotu egin zen oso. Itoginari tantak bezala bilduko zizkioten hitzak.

Basamortuan egona zen artzain. Karmen Buenos Airesen bertan gelditua zen neskame. Hiru hilabetez behin Santa Rosara etortzen ziren. Mate hartzen ikasiko zuen. Behor bat zozkatzen zuten araukanoek bertako ferian, berari suertatu behar. Bazeraman estantziara pozik, behorra atzeraka hasten zaionean, ez zuela menderatuko, sugea sumatuta edo, hantxe joan zitzaiola behintzat brida hautsa artean erresta. Geroztik ikusiko zituen indioak zozketan, eta sudurrak ematen omen behor hura berari ihes egindakoa bera ez ote zen.

Hamabi urte zituen emanak Ameriketan eta sei hilabete Amaran. Itzulbidaia labezaintzan omen zuen ordaindu baforean. Esker oneko gizona zen, manukorra, baina burumakur egoten zen isilik, egoskor, otordu aurreko otoitzak murdukatu gabetanik, eta Mariak igandeetan, igandero, gosari txipia hartzen ari zirela mezatarakoa aipatzen zionean, mahaitik altxa eta alde egingo zuen baratzera. Etxeratu zeneko hurren igandean Don Mateok seme hondatzailearenaz jardun zuen pulpitutik, «Etorri zaigu gure anaia hilda zegoana, eta piztu dana, galdua zan, eta agertu dana!», baina Inazio Jauregik «Ez zun elizara begiratuko ordua jakiteko ere!».

Bezperatik zebilen erlea eta Donostiako erdialdera hartu zuen, mobilizatu egingo zituztela ere entzuna zen. Soldaduak patruilan zebiltzan, bakan eta presaka jendea. San Inazioko geltokian etzana zegoen tranbia, nafarminak jotako behia bezala.

Pasaian Luzuriaga pistolapean itxiarazi zutela, piketeetan harrapatutako galegoak beren he-

rrira zirela bidaliak. Donostia sakeoan hartu nahi zutela. Taberna eta denda gutxi ageri zen zabalik. Gaitza zetorren Trintxerpekoa.

Bazen jendea leihoetan Ategorrietako hartan. Erlojutik aitzina egin zuen, beldurrak baina, ferra hotsa eta irrintzi haiek, hamarren bat zaldizko eta tropa polita oinezkoak. Behatu ere gabe iragan zen, urrats bat bestea baino arinago ez emateko artarekin, zuzen. «Alto!». Ez zekien burua itzuli behar zuenetz, gelditu egin zen. Arbolak Mirakruzeraino, bera bezain zutak. «Arriba las manos!» esan zuen fusila giltzurrunetan sartzen zioten eskuen ahotsak, «Qué lleva usted ahí!», ozarki, tiro bat emateko pronto. «Suéltelo!», ontzi hutsaren zarata petrala atera zuen fianbrerak espaloiaren kontra. Esku urduriek rekamaran sartu zuten bala, latza hotsa, «Abralo!». Geldiro makurtu zen, korapiloa askatu zuen. Kanoiak burezurrean ematen zion «Continúe!». Algara egin zioten, ez zuten jadanik tirako, haatik «Txirritaren galtzak ere!» bete ikara eramango zituzkeen. Irrintziak entzuten ziren. Mirakruzen itzuli zuen burua.

Bidebietatik zetozen, haurrak eta emakumea aitzinean, kartsu, izukaitz, soldaduen lerroa hautsi eta gora etorriak. Bidea alderik alde hartzen zuten, hutsa gelditua Trintxerpe. «Lehen ere sobra ziok espaloi-jendea!», heldu zion besotik, «Baño asaltokoak zioztik Ategorrietan!» ohartu nahi izan zion asaldatuta, ordea Zabaletak ez zion besoa utziko, «Banaka ez gaituk ezer, batuta herria gaituk!», gorantz zihoazen, jendez eta oihuz inguratua zegoen konturatu ordukoz.

Kapitaina tropagana, manifestariengana sindikatukoa, «Dice que teñen ordes de non deixarnos pasar!». Kapitaina ere hizketan ari zen guardiekin. Inor ez zen mugitu. «Adiante!» esan zuen emakume batek jendeagana jiratuz, «A república é nosa, non deles!». Aitzina egin zuten geldiro, isilik. Bazen jendea leihoetan Ategorrietako hartan. Kornetak jo zuen. Hogei bat metrotara zeuden guardia zibiletarik. Kornetak jo zuen, deskarga egin zuten, inor ez zen mugitu. «Adiante!» esan zuen sindikatukoak. Airera izan zen. Fusiletara mugitu ziren, ferra hotsa eta irrintzi haiek, fusilak jendeari zuzenduak oraingoan.

Kornetak jo zuenean fusilek su egin dute, oihuak auhen dira orain, ume batzuk kanoi ketsuen aurrean zaldi putinkarien artean, muin kondarrak, «Norbaitenak izango ziran haiek ere!», listua bezala arbolan itsatsiak. Zaldiak ihesi zihoan jendeari oldartu zaizkio, berak ikusia, etzandakoak hankapean hartuz. Gizon batek laster egiten du Ulian gora, mahuka hutsa airean luze bandera zahar. Arbola ostean kukutua, zabalik ikusi du atea, zaurituak kamionetan sartzeko agintzen du kapitainak, emakumeak negarrez datoz senarrak biltzera. Atea zabalik zegoen, arnas batean sartu zen atarian. Zer gerta ere hobe igaitea, atso batek heldu zion lehen solairuan, «Asesinos, éso es lo que son, mendizerri hoiek!». Guardia zibilek koltxoiak eskatzen zituzten kaletik, zaurituak eramateko. Norbaitek heiagora egin zuen atarian, jaitsi ziren, barandillari helduta zegoen atetik zetorren odol arrastoaren buruan arneguka. Odolaren aztarna aterako zutela, beldurrak zegoen, atsoa atariko giltzaren bila igan zen. Fianbrera biltzen zuen serbilleta askatu zuen, gizonak itsusia zekarren zangoa, ez zion estuegi lotu. Atsoak atea itxia zuenean «No hay

nada que hacer con éstos!» hasi zen ostera, baina gizonak tanpez moztu zion kolera sabelpetik atera zuen pistolarekin, «Abóa, gárdeme iste cachafullo!». Atsoak isilik hartu zion, etxera igaiteko esan zien. Fianbrera hartzera makurtu zen. Kokoriko gelditu zen, hondoa sabeltzen zion zulo txipiari beha.

Zaharren esana zen Goizuetakoak nekez huts egiten zuela. Zentraletakoek abisua emana zuten, hirugarren eguna zuten euritan, Urumeako erregatan urak handituak zetozen. Izarrek ibilera zoroak zerabiltzaten, hodei beltzen trumonadak ez zuen gauza onik ekarriko. «Korputz egunian!» lehertuko zuen hurakana.

Urak ibaika Jaizkibelen behera, arbolak eten, zubiak gainditu, Errenteriako paper-olako bobinak eta pinu enborrak kanalea betean ageri ziren Lezoko zerrategiko okumeen artean, hildako izurdeak bezala tripaz gora, «Hura ebiya eta etxietan urik ez!». Lurrak irekitzen hasiak ziren eta jendeak ikaratzen *(...Jangoikuaren kastiguz*

dala askok egin du juzkua...), ganadu asko behar zuen galdurik.

Larunbatean alkateordea etorri zitzaien etxea utzi behar zutela, goiko kaskora aldatu behar dutela mendipeko guztiek lehenbailehen. Pilda zenbait bildu zuten ilunpean, erremintak eta bobinatzen ari zen motor txipi hura hartu zituen. Ez ziren haserre alkateordearen aginduarekin, «Alperrik baita uholdiari atiak jartzia!», belaunetarainokoa zeukaten beheko bodegan, eta baratzearen gainbeherak indarrean zekarren ura oilotegiraino. Eskoletan koltxoiak jarriak omen zituzten jendea biltzeko. Zakurra askatu zuten. Arrebak itxoiteko esan zien, berehala zetorrela eta etxerantz itzuli da, eskalapoinak lokatzari ezin kenduz doa, zaku batekin doa, oilotegira doa, eta ez ahal zuen sartzea egin pareta erori denean kaiolak porrokatuz, barrenoak azpia jandako harkaitza bezala hondoratu zen teilatua.

–9–

«Nafarra kasta gaitza izan da beti!» baina kosta behar zitzaien horratikan Oiartzundik aurrerakoa, bazeuden boluntarioak Irun alderako. Hernaniarrak Santiomendi eta Txoritokietara etorriak ziren, burdinari txarrantxadunaz zeukaten itxia bentetako inguru hori, «Harekin, alegia, ez zirala pasako!». Jendea lasai zebilen.

Moilakoak elkarri pistolak erakusten zebiltzan Herrerako tabernetan. Bidebietaraino igan zen errepublikanoen zentrora, ez ahal zioten ukatuko. Buila handia zerabilten, ez zeukaten hainbeste jenderentzako, denak gauza beraren eske zihoazkien. Muguruza zaharrak paper fardoa lotzen amaitu zuenean barruko bulegora etortzeko agindu zion, eta armairua zabaldurik, «Pablo Iglesias testigu genula!», pistola txipi bat eman zion, sega potoan gordetzeko modukoa, kaxa bat balarekin.

*El Dia*ren orri bat zabaldu zuten harrobian. Txandaka aritu ziren anaia eta biak. Ez ziren

ehiztariak, ez zuten eskopetarik ezagutuko etxean, baina «Hainbestekoa punteria!».

Ez zuten oilotegia jaso, oiloek librean behar zutela jaioko zitzaion amari, etxe atarian zebiltzan egun osoan paretako kareari mokoka. Euri nahiz ateri egongo zen aulki txipian jesarrita, zarpail, mutu, mantalean bildutako artaleak barreiatzen, deusi lotzeko gauza ez, baina auto hura oilandak airean harrotuz zangoak firrilpean harrapatzerainoko hurbilean gelditu zenean, burua jaso zuen. Seme gaztea ez zen jaitsi, sartzeko agindu zion eskuineko atea barrutik zabaltzen ziola.

Zakurraren zaunka itoz abiatu ziren, ermitatik gora puzkerka, ezkerrera hartu zuten Herrerarako, Villa Casaresen aitzinetik iragaitean bozina jo zuen harro, herriko auto bakarraren jabea Don Segundo. Kokotsa kolkoan gidatzen zuen mutilak, zaratatsu, anaiak txipitan ikustera eramaten zuen auto haiek bezain lotsagabe. Eskuak belarrietan zituen amak, algara egiten zuen. Ezker jo zuten berriro, eta belozitateak zakar aldatuz kaskoraino heldu ziren. Bazkalordua zen,

ez zen inor ageri plazan. Frontoian sartu zen, maniobra egin zuen eta leihoetara azaldu zirenak eskuarekin agurtuta beherantz amildu zen Audizko metari belar sorta bat kentzen ziola.

Etxerakoan anaia zetorren bidean, bozina errepikan zanpatu zuen. Bazterrera eragin zion zangoak bilatuz, autoen laineza zuen. Amak eskuak jaitsi zituen belarrietarik, eta bi urteko mutualdia hautsiz «Motel, gurdi muturik etziok!». Gazteak barre egin zuen, anaia harrituari «Rekisatua!» esaten ziola Packard beltzaren bolantea pailakatuz.

Aztoratua sartu zen tabernan, karta jokoa uzteko agindu zien Zugastik, laguntzeko elizpeko gelaraino. Zugasti ez zen izutu xamurra, harritzekoa. Luistarren diruzaina zen eta bazeukan giltza, isilik sartu ziren «Zugasti, Arrieta, Mujika, Artola eta bostak!».

Atea itxi zuen. «Don Mateoren bila etorri bihar ditek!», Herrerako tabernan entzuna zuen. Estandartea egoten zen kajoia zabaldu zuen, zetaren azpian miatu zuen. Zugastik pistolak atera

zituen estandartepetik, gerrian sartu zuen berak. Denek ere bazekiten bazirela, baina Zugastik bakarrik non. «Nik ez dit bihar!» esan zien, eta lauren aurrean atera zuen Star txipi hura, «Badit!».

Zugasti eta Mujika igan ziren Don Mateogana. Ez zeukaten autorik. «Eraman nazute Zarautza mutilak, eraman nazute Zarautza!» esan zien Don Mateok urduri. «Autoak ez liguke ezertarako baliyo!» esan zion Mujikak Artolari, «Bide guztiak patruilaz josiak zazkatek hoyek!». Astigarraga aldera eraman behar zela, «Artadiz artadi abitu ziran!».

«Arrieta, Zugasti eta hirurok!» gelditu ziren plaza inguruan, apaizaren etxea zaintzen. Ilundu eta oso gerora heldu zen furgoneta. Alto eman zioten elkarri. Linterna bat zeukan Arrietak, furgonetak berriro biztu zituen argiak. «Adónde vais!» esan zien Zugastik zakar, pistola erakutsiz. «Sospetxoso bat detenitu bihar diyau!» erantzun zuen Zabaletak begiak pistolarekin babesten zituela. «Sospetxoso hori apaiza dek!» esan zuen Artolak. «Apaizak etzioztek libre pekatuetatik!» *(...ezkertar oyek Elizan kontra artua dute afana...),* baina Artola eskolako aurrena

izana zen, «Zuentzako nahikua dek apaiza izatia sospetxosua izateko!». Xoferra irten zen, «Basta de charla, ese cura es un espía!». Plazakoak leihoetara atereak ziren. «Hobe zenuten apaiz zahar baten atzetik ibili baño Oiartzun aldera azaldu!» esan zien Zugastik leihoetakoek entzuteko moduan, isekaz. «Bai, zuek bezela!» erantzun zuen Zabaletak furgonetan sartzerakoan. Maniobra egin zuten beherantz hartzeko. Lau ziren, beste bi ikusi ahal izan zituzten kajeran. Zabaleta zihoan bolantean. Gelditu egin zen haien ondoan, eta lehendabizikoa sartzen zuelarik, enbragea utzi baino lehen, «Euzkadi merezi dezute zuek bai, hala esan zidan!».

Nafarrak hariak mozten ari ziren eta Aranoko zentralak ez zuen indarrik ematen aspaldian, Arranbide eta Pikoagatik ere ez zen heltzen. Ergobikoa zegoen martxan bakarrik, eta Donostiako Parte Zahar guztiari argia eman beharra karga handiegia zen motor haientzat, goiz edo berandu saltatu egin behar zuen. Villafrancak ez zuen halakorik entzun nahi ordea, ez zen ofizio-

koa, behin baino gehiagotan esana zien sabotajearen ordainarena, eta metraileta paratzen zien buruan. Mobilizatuak zeuden eta bertan egin behar zuten lo laguntzaileak eta biek, miliziano-ekin. Villafrancak bale bat ematen zion Garratxeneko alabari otorduarekin etortzen zenean. Villafrancak egunero esplikatzen zion bere lagunari, «Compañero!», metrailetaren nolakoa, eta bi tiro emateko mugitzen zenari. Lazkaoko mutil gazte bat zen, «Umia!», eta beraiek baino beldur handiagoa izaten zuen Villafranca lotarako prantatzen zenean.

Tiroak sumatzen ziren, bazetozela esanez ere etorriak ziren, baina Villafrancak bi tiro emango ziela egiten zien mehatxu, eta alde egiten zuten izututa. Aurre egin behar izan zion, nahi baldin bazuen gelditzeko bera, ordurako ikasia izango zuela, «Ez langilliak bakarrik, baita motorrak ere nola kontu egin!» eta bera bazihoala handik. Villafrancak metraileta ezarri zion buruan, baina orduan auto hotsa entzun zen. Buzodun bat sartu zen zentralean, pistola eskuan eta lotura gorri-beltza besoan, «Orden de replegarse!». Villafrancak barkatu behar izan zion, «Vámonos!»

esan zuen buzodunak. Lazkaotarra izututa zegoen. Autoraino irten ziren laurak baina «Sólo hay sitio para dos!» esan zien buzodunak. «Está bien, esaten diot nik orduan, pero entonces dame lo que me has quitado!» esan zion ez Villafrancari berari behatzen ziola, baizik buzodunari. Zakarkerian itzuli zion pistola, «A ver si te sirve para algo!». Autoan sartu ziren, eta Villafrancak, damuturik, eskua luzatu zion «Ordizin galdeu zak Villafrancagatik!». Villafrancaren eskua leihatilatik kanpo zuela abiatu zen autoa. UHP hitzak zeuzkan margotuak atzealdean.

Santiomenditik behera zetozen nafarrak, zubian jotzen zuten tiroek, fruta mantxatzen duen kazkabarra bezala.

–10–

Bidea betean heldu ziren Oriora, bizikleta, gurdi, zakur, atso eta ume, «Halako erromeria tristerik!». Txalupak eta baforeak mukuru beteak ageri ziren jendez eta koltxoiez, Bilbo aldera zihoazen gehienak. Zapelandi bat hurbildu zitzaien, ilundutakoan pasako zituela San Juan de Luzera merke.

Biharamunean Oikiako zentralean zeuden, lasai zegoen hangoa, adinekoa zen, ezagutzen zuen Compañian noiz edo noiz ikusiaz, baserritarra. Etxera eraman zituen, bazuen nahikoa intxaur eta arrautza. Alarguna zen, bi alaba zituen neskazahar «Zein baino zein!». Laguntzailea, mukitsu ahalena, atzetik hasi zitzaien lehen egunetik. Ganbaran egingo zuten lo.

Kontxako barandilletako mugarrietan paratzen zituzten buruak eskarmentagarri, erruz ari baitziren lepoa mozten, eta jendetza biltzen zen egunero hartara, seniderik edo ezagunik aurki-

tzen ote zuten. Halako berriak ematen zituen zentraleko telefonoak.

Bibelarra txorrokotan biltzen ari ziren euri beldur ibai ondoko bidetik kamioiaren hotsa sumatu zutenean. Eskuarearen kirtenburuan jarri zuen kokotsa, beha. Katu emeak satitsu bat zeraman ahoan. Kamioia jendez betea zetorren. Nekez baina bertaragotu zenean, gorri-beltza ikusi zuen pertika muturreko bandera, milizianoak ziren. «Zenetekoak!» esan zien laguntzaileari eta Ibaiganeberriko alabei, eta eskuarea bertan utzirik bideraino amildu zen malkarrean. Kamioia mantso zetorren. Laster egin zuen «Eh, eh!» oihukatuz, eskua inarrosiz, bihotza ere punpaka.

Kamioia gelditu egin zen. Fusilak zeramatzaten kajerakoek, uniformatuak zetozen, uhalez josiak. Ahoa bete hitz gelditu zen. Bizardunak zorrotz behatu zion kajera gainetik begi zeharrez, haien buru seguruena, fusila kendu zuen sorbaldatik eta zangoa kartola gainean ipiniz jauzirako «Alua!», ukabila erakusten dio «Hago, hago pixkatian!», ahotsagatik ezagutu du, bertan akabatuko zuen, arineketan dihoakio ihesi, belarretakoek ere zangoei eragin diete. Sasipean bota du

pistola, «Harrapatuko hat!», zakarragoa orain ahotsa etorri berrian eraztuna mahaiko kajoitik atereaz «Por mí podéis hablar en vasco!» txunditu zituenean baino «Siempre que os entienda, claro!», isilik gelditu ziren eskolako denak, eraztuna hartu eta botzen duenean harrika, eta algara egin dute kamioiko denek harrika hasi zaionean. Bandera gorri-beltza zen pertikaren muturrean, «Falanjearena!».

Ama eta bere senarra mezatarik itzuli gabeak ziren eta bakarrik zegoen baratzean. Zer edo zer galdetzera etorriko zitzaizkion, galduak beharbada, ez ziren ezagunak behintzat. Aitzurra utzi zuen, ez zen mugitu haatik. Aza hosto bat zanpatu zuen bibotedunak. «Ignacio Jauregui?» galdetu zion, eta «Acompáñenos!». Besotik heldu zion. Gabardinaduna atalburuko hitz beltzak ezin irakurriz atzeratu zen, ezpainka gora beha. Aldamenean jarriko zitzaion autoan, «Qué quiere decir eso?».

Bordatxo zaharrean arrautza txitaduna ere jana zela, «Baietz!», zioen Oilagorrak eztulka, «Ume alu honek propio ekarrita!», eta kolpea tira zion lepondora, baina bazterrera egin zuen parrokianoek irri eta Oilagorrak «Demónió!» mehatxu xamurra egiten ziotela. Ahitua zegoen Oilagorra.

Emakumezkoak azaldu ziren plazara mantilak kenduz. Oilagorrarena ordaindu zuen eta elizarako utzi zuen taberna. Aurrerako manua egin zion Don Mateok, burutik gora ari zen roketearekin borrokan. Ile harrotua zanpatu zuen. Gurasoei ere esana ziela esan zion ikusi orduko, ez ibiltzeko horrela, kalterako ere izan zitekeela *(...emen ez dago beste modurik, artzagun pazientzia...),* ez zegoela ezer egiterik. «Arkalen egongo dek noski, denok gaituk pekatariyak baño, Jaunak barka bezayo!».

Denak lerroan zeuden txertoaren akuilukadak bizkarra minberatzen ziela, arropa handiegiarekin, ilea motz, belarridun. Ofizial batek errebista pasa zien lista hartu ondoren. «Tripa nakan

ordun!», aurrez aurre gelditu zitzaion harro, bizarra zuen. «Estás bien cebado, tú lo menos serás cura!» esan zion. Aldamenekoek barre egin zuten, Artolak behatu egin zion, kinta berekoak ziren. «Si eres cura, sabrás latín!». Artolak ez zuen barre egiten, ez zuten soldaduskarik egin, kupoz gaindikoa suertatu zitzaien biei, baina segur zegoen sarjentua zela tipo ergel hura. «Vamos a ver, dinos qué color es éste!» galdetu zion sardineta erakutsiz. Bazekien militarrek galdera petralak egiten zituztela. Usteko zuen ez zekiela erdaraz. «Rojo!» esan zuen sardinetari erreparatu ere gabe. Sarjentuak, sarjentua behar zuen hark, buruari eragin zion erantzunaren okerra deitoratuz. Sardineta gorria zen. «Barrabiletan eman zidan ostikua!». Makur egin-da gelditu zen. «Qué color es éste?». Denak isilik zeuden. Gradetaraino heldu zen koleran, hiru maila igan zituen, besoa jaso zuen bokamanga erakutsiz. Sardineta gorriari behatzen zioten denek. «Encarnado, encarnado!» oihukatu zien, eta haren orroek Inazio Jauregiren pilotakadek bezperetako garaian bezala egiten zuten zarta Logroñoko frontoian. «Aquí no hay nada rojo!».

–11–

«Itxeki horreri!» esaten zion zerria ebasten ari zirela Urdanibiako hartan, ongi ezagutzen zuen aieka hura Alkainek, hondarribiarra zen, lagunak egingo ziren. Arreba, Anita, neskame ibiltzen zuen eta bankete kondarrak lortzen zituen.

Estreinaldia zuen berak Hotel Miramarren, Bidasoaren bazterrak barrendatzen ibili behar zuen goiz-gauero, Alkainek berriz bilatua zeukan igandeetan bazkaltokiko zaintza egiteko modua, «Hori Troncoso koronela duk!» eta «Hori El Sultán Azul duk, moruen jéfia!», denak ezagutzen zituen, «Hori Millán Astray duk!». Moroek paretari beha jaten zuten, eta neskek zerbitzatu ere bizkar atzetik egin behar zieten, Francoren argazkiaren azpian.

Hotel Miramarreko nagusia hurbildu zitzaion Millán Astrayri kafea hartzen ari zirelarik, «Mi general, Anita está triste!» esan zion. «Ah sí, por qué?» galdetu zuen Millán Astrayk Anitari beha. «Porque tiene al marido en la cárcel!». Millán Astrayk puruaren keari behatu zion, «No será ver-

dad!» eta berehala «Por qué?», eta orduan Miramarreko nagusiak egia esan zion, «Porque, porque dicen que echó un pedazo de pan al retrato del Generalísimo!». Alkainek burua makurtu zuen. «Pan? A ese pan?» esan zuen Millán Astrayk, «Piedras es lo que tenía que haberle echado!».

Kapitainak diskoa jartzeko agindu zion Alkaini, eta gramofonoak musika sortu zuenean zutik jarri ziren, mezatako aulki zaratan. Gelan zeuden guztiak tente gelditu ziren, neskameak ere erdibidean beren joan-etorrietan, ontziteria eskuetan. Sultán Azul eta bere moroek ez beste guztiek luzatu zuten besoa, kantari hasi ziren. Anitak bandeja erortzera utzi zuen. Metalak aurrena, baxera hautsiak hurrena, isildu zuten militarren kantua. Diskoaren musika ozenago entzun zen. Anitak ez zien behatu bere galtzerdi zuri ardo zipriztinez odolduei, Anitak beso bakarra luzatua zuen Millán Astrayri behatzen dio gorrotoz.

Mugaldetik Logroñora bilduta, trenean sartu zituzten gauez, Madrid hartzera doazela dabil zurrumurrua tropan, inork ez daki zehatz. Mando samalda handiak, beltzak, ikusi dituzte bagoietan sartzen, mandoak hobeki zaintzen zituzten soldaduak baino, mandoak kapitainaren gradua du, kanoiaren ahoa bezain beltzak mandoak.

Ez dakite zenbat ordu, «Egunak!», eman dituzten bagoietan, «Dena bertan egin biharra!» elurretara iritsi direnean. Euliek zikindutako maindire zabaldua bezala dago geltokiaren zabaldegia, kamioiak, mandoak, kanoiak, soldadu zarpatsuak eta zaurituak nonahi. Sardina lata bana eman diete. Abiatu egin behar dute berehala. Frentera. Zauritutako batzuekin hitz egin zuten, beteranoak ziren, gerrako batailarik gogorrena Teruelekoa. Eztandak entzuten dira urrunean.

Trenbidea bazter utzirik joango dira ilunik, fusil traketsa bizkarrean, eskuen azal ospelduan itsatsitako hotzari kolpeka, aurrekoak uzten dituen oinatzetan oinkatuz, txipituak poste beltzen on-

dotik, irristatuz elur jelatuan, isilak, isilak konpainiako mandoak bezala aldapa gora, zamaz elurretan hondoratuak topatzen dituztenean. Gelditu egingo dira galtzak biltzen dituzten polainek ezin eragotzi izan duten elurrari biraoka, mandeulirik gabeko begi tristeei beha, txelaturik, izerdi zurrutan beraiek eta mendetako elkar borroka tematsuan gorantz datozen mandazainen zain gelditutako zamariak. Bridatiraka saiatuko dira, eta orduan mintza-legearen hauste haurrek ezin ulertuzko hura zen zuzentzen, «Arre mulo!» esango zieten mandoei zakar, baina zamariak –idi bailiran, behi bailiran– elurraren zepoan gelduko dira.

Bi egun ibiliko dira, zerupean etzango dira lotara, segada ederra abiaziorako, baina gorrien ratak ez dira ausartuko. Iratzarriko da, eta dena zuri inguruan, lo hartuta atzean gelditua behar du, «Alkain, Alkain!» aztoraturik, motxila bilduko du eta orduan, bat banaka, Batallón de Fusileros Bailén 134ko 25garrenekoak, satorrak iduri, hamasei gradutako hotzera jaioko dira elurpetik.

Ez dute jatekorik, egarriak puskatzen daude, eta mandoek elurretan eginiko hanka-zuloetara

murgilduko dira ur uherra zurrupatzeko. Eguerdian tripako minez ezin ibilian dago konpainia erdia, gorriek elurra pozoitu dutelakoa zabalduko da. Edatera etzaten denari, tiroa eman eta bertan uzteko agintzen die kapitainak sarjentuei.

Muela de Villastar-en ezarriko dute konpainia, atzeguardian. Ez dira fio, ez diete euskaraz hitz egiten uzten. Gorrien kanoikadek uhinaren herrarekin lehertzen dira, «Eta guri Cerverakoak ikara ematen Txoritokietan jotzen zunian!». Egur hezetik bezala klaskak eta pindarrak, muino osoa zen harkaitz ipurdiz harrotuak, kontserba lata, lur gorritua, kartutxo huts eta metrailak zauritutakoen erregu-arneguak *(...obligaziyoz da ta juan biar gerrara...).* Hotzarekin gogortu eta jelaturen bat egunero, «Elurra beltza dek!», mahukak moztu eta muturrean josiz kaltzetin gisa erabiltzen zituzten. Noizean noiz moroak ageri ziren purtzileria saltzen zaharrak, beltzak. Haietakoren bat, «Gutxi fiatu!», Zugastiren anaia hil zuena.

Zenbaitetan Don Laureanok berak ekartzen zien, Villa Argentinako nagusiak, betetzeko. Bazterrean utziko zuen, eta itxoin gabe, oinez abiatuko zen erdialdera. Haren propina erreal bikoa izaten zen, kale bat izan behar zuen Buenos Airesen «Osorik beria!».

Gasolina tantarik isuri gabe bete zuen, esmaltea gorritzen baitzuen luzera, zapia pasa zion denean, zikin xamarrak zeuzkan leihoak. Buzoa erantzi zuen, eskuak garbitu zituen, orraztu egin zen. Don Laureanok La Urbanan bazkaltzen zuen, bertara eraman behar izaten zioten hiruretarako. Alkandora galtzapean sartuz etorri zen harro atzetik «Autoen laineza zakan anaik izugarriya!», ezkerraldeko atea zabaltzeko luzatu zuen eskua, norbaitek oihu egin zion.

«Está muerto!» komentatuko zuen señoritetako batek, hiru ziren, aterpearen zutabea jotako mutilaren buruari autotik zutik behatuz. Xoferra ez zen jaitsi kapelua jarri eta alkandoraren lepoko botoia lotu artean. Larramendi gasolindegiko langileek isilik inguratzen zuten lagun etzana. «Muerto?» esan zuen Lambea komandanteak autotik irtendakoan. Langileei behatu zien zakar.

Autoan sartu zen berriro, atzera eman zion mutilaren zangoa libratuz. «Más mueren en Teruel!» esan zien, eta aitzina egin zuen señoritekin. Mutilak begiak zabalik zituen eta eskua Don Laureano Azpiazuren Hispano Suiza beltzari luzatua.

Posteak beltzak ziren lainotan, zuriak ziren lurrunak elur zuriaren gainean. Isilik heldu ziren makur, goanteak erantzi zituen, tu egin zuen, aizkora kendu zion Artolari. Okertuak, baratzean ahantzitako aitzur kirtenak iduri posteak. Aizkorakada tiroa bezalakoa zen zur jelatuan. Alkain eta Artola gora eta behera zebiltzan paseoan gelditzeke. Zigarro bat atera zuen Alkainek, agudo ibiltzeko esan zioten zigarro mutur bat besterik ez zen. Leunki lerratzen ziren esku gogortuak, kamiseta bizkar bustian itsasten zitzaion. Postea isilik pausatu zen elurretan. Hurreratu zitzaizkion eta Alkaini zigarroa kendurik ke luze bat hartu zuen postea ostikatuz zangoak berotzearren. Baserri lehertura eraman zuten bizkarrean, goanteak jantzi zituen, Artolak hartu zuen aizkora. Berrehun bat metro egin zituzten

hurrengo posteraino. Denak zeuden okertuak, harian bele handiegi bat kulunkatu izan bailitzan.

Tiroa bezalakoak lasterka eragin zien aizkora elurretan utziz, murgil egin zuten, kokotsarekin jo zuten bideaz eskuineko haitza. Tiro bat bezalakoa, fisturik gabekoa. Elkarri behatu zioten. Bidearen bihurgunean bertan zeuzkaten, aizkora banarekin ari ziren egurketan. Artolak su egin zuen mauserrarekin. Gorriek beherantz egin zuten arrastaka, itsumustuan tiratuz. Harriaren kontra zapaldu zuen belarria, eztarrian jotzen zion bihotzak, «Uztak Artola, uztak!».

Bideraino jaitsi zen bizkar emanez. Baserrian sartu zen hatsantua, eskuineko goantea erantzi zuen, pistola atera zuen. Zigarro itzalia ezpain lehorrean zeukan josia, hotzak gatzatu egiten zion hatsa. Isildu ziren tiroak. Elurra hasi zuen. Lasterka dator Artola, tirabidean dauka, pistola zuzenduko dio. «Alkain?» galdetuko dio aterpera heltzen delarik. «Jeistak traste hori!», bota berri pare bi zekartzan, «Bati kaltzetiña ta guzti kendu bihar izan ziot!».

Kapotea eta Arriagako amonak kontadorea karramarroa ezartzeagatik bidalitako jertse lodia bati eta besteri emango dizkio, begiak malkotuak dauzkan Artolak eskua luzatuko dio «Alkarrekin etorri gaituk, baño akaso ni ez nak bueltatuko!». Telegrama bat hartua zuten beretzat komandantzian, presentatzeko segituan Kuartel Nagusian. «Otro señorito recomendado!» komentatuko du komandanteak pasea izenpetzen diolarik.

Cellaraino jaitsiko da mandoz postarekin, lerratuz erroitza bazterreko bidezidorrean, «Hauxe Domingo Kanpaña!» esango lioke enkargatuak ikusiko balu. Aterik gabeko sarrerak, atso-ahoak iduri, eta atsorik gabeko leihoak baserri bakanetan, hemen ez dago erori eta bilduko duen ostalaririk. Trena hartu zuen. Ezin du jesarri, istapea minberatua zeukan. Enkargatua inozoa zen, ostalariaren senarrarekin ibiltzen zen igandero koneju ehizan huron alua zakuan hartuta, ostalaria leihoan utzirik irribarrea itzuliko zion gizonezkoaren zain. Geldialdi aunitzen ondoren Logroño joko dute biharamunean.

«Buenos padrinos eh?» esango dio telegrama irakurriko dion ofizialak. Donostiara etorri behar duela Ergobiko zentralaren kargu hartzeko. Gorriek Tremp hartua zuten, eta argirik gabe gelditzeko arriskua dago Españako Norte osoan. «Nere artian, suerte zerria dakak Lucero!».

Karmen Jauregiren gutuna helduko da. Erdaraz dago, eta ustedeska mintzo da. Ezkondu egin behar duela, poloniarra zuen senargaia, baina katolikoa, dendaria, eta handik aurrerakoa ez die irakurriko gurasoei, bazekiela Inazio Pampa aldean zegoela, lesakar batzuekin artzain. Artzainek ongi irabazten zuten, ezkontzarako gomita bidalia zion etortzerik izango zuenetz ez zekien arren, hiru hilabete egiten baitzituzten basamortuan. «Espero visitarles con mi marido el próximo verano!» irakurriko dute begiek lehorrik, «Ahora que ya pasó el calvario rojo!».

Igande hartako meza guztietan esango zuen, hiruretara joandakorik ere bazen, eliza lepo

betea Zugasti eta Mujika eta Arrieta eta beste falta zen arren, «Neronek entzun ezpanitu ez nitun sinistuko!», baina harro oihukatuko zuen pulpitutik Don Mateok «Datozela, datozela orain Gora Euzkadi ijuka zabiltzanak, nun dira, isilik daude orain!» eta ez dute burua denek makurtzen, ezker eskuin behatzen dute eskola ondoko karlistek erronkaz, «Halaxe esan zun, neronek entzuna, euskaldunen odolak eztu odolkiak egiteko ere baliyo!», pulpitutik.

Zapelak kaskoratuz jaitsiko dira agureak korutik. Eguzkiak gogor jotzen du plazan. Tokarako ilara osatuko da berehala, frontoia beteko dute gazteek barrenetara. Ez du inoiz toka maite izan, nahiago izan du espartinak hautsi arte pilotan. Petrilean jesarri zen txanda zain. Pasaren banderitak berrituak daude, «Zabaletak berak!», nork bestela, margotutako «Hiru koloreko arrosa!» biko dago berriz, eta Donostiakoa da, ez ikurriña, harekin gurutzatzen dena. Ez zekien nola esan behar zion anaiarena, baina azaldu behar zuen Anitagana. Barrenerakoa oihukatu du Artolak,

eta kantxan sartzeko ezkerra estutuz altxatzerakoan atzapar astun batek helduko dio bizkarrean, «Konpaño, etzidatek sinisten hire aita ta Marrus hautsi nitula angula jaten Bordatxo zaharrian!» esango dio Oilagorrak ardo keruan, «Testigu baten biharra zakau».